

Kaietano Sanchez Irure

Bizi Bedi Euskera

Bertsoak (1893-1916)

© euskaraz.net 2004



## SARRERA

Kaietano Sanchez Irure (1856-1916) donostiarraren bertso jarriak aurkeztera gatzokizue oraingo honetan. XIX eta XX mendeen artean Euskal Herrian sortu zen euskal literaturaren belaunaldi miragarri hartako beste ale bat dugu Kaietano, nahiz eta gaur egun Donostian bertan ere askorentzat ezezaguna den.

Donostiako Udaleko langilea izan zen. Ez beti ordea. Hogeita hamasei urteak ondo beteak zituen udalean hasi zenerako. Eta honekin lotuta bitxikeria bat badago: Kaietano Sanchez Irure udalean sartu zen urtean bertan hasi zen bertsoak argitaratzen. Argi dago ordurako bazekiela bertsoak behar bezala antolatzen, ofizioa ezagutzen zuela alegia; hala ere 1893 urtea baino lehenagoko bertsoak ez dugu ezagutzen. Sariak eta aipamenak hainbat bider irabazi zituen han eta hemengo lore-jokoetan, baina ez zen lehiaketako idazle bakarrik. Maiz eguneroko gaien inguruko bertsoak argitaratu zituen prentsa arruntean, askotan gorabehera txikiak edo berta-bertakoak, gai xumeak alegia. Eta ez zitzaion axola gaia behin eta berriz errepikatzea –titulu batzuk ere hainbat aldiz errepikatuta ikusiko dituzue–, batez ere berak sortutako arketipoak osatzen laguntzen bazuen errepikatze horrek: baserritar zintzoa, senar hordi eta alferra, euskaldun erdaltzalea, artzain ona... Artzainaren irudia goraiatzeko du beti, eta pentsatzen jarrita lanbide horrekin badu Sanchez Irurek bere nolabaiteko lotura: artzaina ez baina giza zaina da lanbidez Kaietano, gizataldea zaintzearen ardura duena. Artzainak nola goraiatzeko dituen ikusita, ez ote zeukan berak ere bere lanbidea goi zeregintzat hartzen?

Bertsoak erruz idatzi zituen. Hemen puska bildu dugu, baina badira beste asko eskura eduki gabez hemen jarri ezin izan ditugunak. Bestek osatuko ahal du gure hutsunea. Egunkari eta aldizkarietan agertu ziren bezalaxe daude jasota, tipografi errakuntzak eta guzti. Hemen daudenak, gaiei begiratuta, askotarikoak dira. Nolabait antolatzen eta sailkatzen ahalegindu gara eta, ondorioz, hamar sailetan banaturik aurkituko dituzue hemen. Aurreratu dezagun, dena den, gairen bat edo beste nabarmendu beharko bagenu horien

guztien artean, dudarik gabe euskararen beherakada eta foruen galera izango litzatekeela gai nagusia, eta horrexegatik *Bizi Bedi Euskera* izena eman diogu argitalpen honi, Kaietanok argitaratu zuen azken bertso-sailaren izen bera hartuta. Horretan, gure tamalez, modernotasun beteko egilea dugu Sanchez Irure, orduan, orain bezala, arrisku bizian baitzegoen gure hizkuntza. Eta arrazoiak ematen dizkigu: besteak beste, euskaldunak kanpotarren aurrean lotsatzen direlako eta horren ondorioz guraso askok beren seme-alabei euskararik irakasten ez dietelako.

Beste gai asko ere badarabiltza, esate baterako, negar eragiteko istorio tristeak, garai hartan oso modan bide zeudenak, beste egile batzuen lanetan ere ageri baitira; amak bere haurrari kantatzen dizkion bertsoak, hildako adiskideei oroitzak eta bizirik daudenei omenaldiak, maitasunezko bertsoak, naturari eskainitakoak, bizipozez beteak, eta abar eta abar. Bada, hala ere, deigarri egin zaigun eta askotan errepikatzen duen gai bat: senar mozkorrarekin burutu ezin duen emaztearena. Gai hori aipu duten bertsoen artean, dibortzioa ontzat hartzen duen bertso hau aurki dezakegu:

Jarriko baluteke  
edo balitzake,  
senarra lajatzia  
okerrikan gabe,  
egñ gañera berriz  
beste baten jabe,  
au utzi ta pozikan  
artuko nizuke.

Seriotasunez betetako pertsona dirudi Sanchez Irurek. Bere bertsoak behintzat halakoak dira. Eta ez da harrigarria bere ibilbide profesionala ikusita: kartzelako zaindari eta bere azken hamalau urteetan udaltzain, esan nahi baita: beti autoritatea. Hala ere, bazuen umore puntu bat, fina, zenbaitetan aurki daitekeena. Hona erakusgarri bat:

Baldiñ ez badu Santo Tomasez  
batek txorixorik jaten,  
egun uraxen urte guzian  
ez zaio noski aztutzen;  
bañan plazatik baldin badizu  
zaleturikan erosten,  
berriz geiago jango dubenik  
ez zait neri iruditzen.

Etxeko eta kaleko euskaraz idatzita daude bertso hauek. Ez daude euskara landu-landuan eginak. Gainera, ortografia traketsa dute askotan, ez beti Kaietanoren erruz. Baina ez bekio azalari begiratu mamiari baizik, bertso hauen mamia, berak esango lukeen moduan, “likort” gozoez betea baitago, gu baldin bagara, ondoko bertso honetako “hegalari xebreak” bezala, horiek aurkitu eta dastatzeko gauza:

Izanagatik, bai, mitxeletak  
egalari xelebriak,  
laister topatzen dituzte, bada,  
krabeliñ ondo gordiak;  
txiki ta aundi danak dituzu  
usai goxuben zaliak,  
gogoz lanian saiatzen dira  
diruditela erliak;  
atxaparrakin urratu nairik  
osto banatzen loriak.

Donostia, 2004ko abuztuaren 2a.



## 1. Donostia eta bertako jaiegunak

### Donostiya

Gastelutikan begiraturik  
egun argiz Donostira,  
nolakua dan ikusirikan  
danak arritutzen dira;  
erri alayak beste lekutan  
geyago ere badira,  
bañan... alare onen onduan  
chiki gelditutzen dira.

Jauregui asko barats da lore  
apañ inguru danian,  
arboldegiyak, plaza, iturri,  
aurretasun onenian;  
eta gañera milla kolore  
nola goyan ala bian,  
ezda sakarbat goizetik arratz  
iñon ikusten lurrian.

Leyarraren dizdiz biziya  
ortagiyak duben gisa,  
egun sentiyan uda berriyan  
nola eguzkiyen prinza,  
eta zelayak lorez betiak  
oso atzian dabilta,  
gaur donostiyan dagubelako  
edertasunaren giltza.

Ezdet topatzen Ama euskeran  
sayatutare iñondik,  
ori iztegui beste librutan  
uste nubela zalarik;  
mundu onetan ezdezulako  
au bañan ederragorik  
eta... gañera ezdizut uste  
gerore izango danik.

Donostiya da uri alaya  
zeru chikibat bezela,  
Jaungoikoa-ri mundu onetan  
erorizitzayon perla;  
usai gozoko lore ta belar  
beste asko ditubela,  
au jakiteko ikusi danak  
gastelutikan bestela.

Goitik diruri sor lorezkua  
iñon berdiñik gabia,  
kale ta echez chukuntasunez  
¿nonda beste bat obia?  
ala kabiya urrezta zillar  
aingeruchuaz betia!  
alašen dan ezkeroztik  
gure Donosti maitia.

*Baserritarra, 1907-08-17, 75. zk.*

## Emen dek

Betor zoka muturra  
ta idiyarena  
donostiar jatorren  
festarik onena;  
dalako chikitandik  
danik maitiena  
uzariyo zarra ta  
gure zoramena.

Aberatz da langille  
lagun egiñikan,  
korri edo laizterka  
soken ondotikan;  
idiya nora ara  
bere atzetikan  
ez da donostiarrik  
joaten ez danikan.

## Emendek soka-muturra

Plazara daramate  
idi bat sokatik,  
iges egiñ ez dezan  
lotuta lepotik:  
ez pentsa dijuala  
idiya bakarrik,  
makiñachobat gizon  
baguaz ondotik.

Plazan chunchuna  
dala senti da *Bakatik*,  
danok chit pozaz gaude  
soñu au entzunik;  
zarrak eta gaztiak  
iya zoraturik,  
bullan ta iškamillan  
iñildu eziñik.

Gure Donostiyako  
ez baita festarik,  
iñauteriz jokutzen  
ezbada idirik;  
aurten chit pozaz gaude  
danok iñauteriz,  
iñorchok ezdaukagu  
ustez zer esanik.

Aurten izango dira  
esaten dutenez,  
oso jolas politak  
gabaz ta egunez;  
ikusiko ditugu  
ezbagaude miñez  
egunak iristeko  
zaleturik gaudez.

Idi ta zezen-suzko  
musika, chunchuna,  
luminari politak,  
aurten naideguna;  
jan ta ondo jantziya  
jende ezaguna,  
triste daudenak farrez  
jarriko dituna.

Danai desiatzen,  
dizutet bai aurten,  
iñauteriko festaz  
elkarrekin gauden;  
bitartian okerrik  
ezbada izaten,  
danok pozez beterik  
ikusi gaitezen.

*Euskal Erria*, 1898, XXXVIII,  
63-64. or.



### **San Juan arbola (I)**

AntziCetako usariyua  
degu Donosti maitian,  
San Juan arbola bedinkatzia  
Kontzeju plazen aurrian,  
gisaseme ta mutill koskorrak  
emakumiak tartian,  
ikusten dira danak amilka  
nola dabilzan lurrian,  
batek tira ta bestiak ebulka  
burrukan azi nayian,  
andik adar bat echeratzeko  
oso larritasunian,  
arbol guziya larrutu arte  
ez daudez bada pakian,  
eta urtero orla dituzu  
beti San Juan egunian.

### **San Juan arbola (II)**

Lizar arbola plazen erdiyan  
bedinkatu ondorian,  
neska ta mutill koskor pilla bat  
laister dizkitzu gañian;  
emakume ta gisasemiak  
asko ayekin batian;  
batek tirata bestiak bulka  
burrukan azi nayian,  
eskamillanta bai zalapartan  
amilka ere lurrian,  
ezdute onik an dabilzananak  
dana chikitu artian,  
adarcho banaz jabetutzian  
gelditzen dira pakian.

### **Santa Rita ta Santa Kiteria**

Aldarecho bat ikusgarriya  
eta apaña danian,  
ageri dala Ama Birjiña  
ostotalore tartian;  
arrantzaliak jarririk dago  
gaur kayeko arkupian,  
usariyua aztu ezdedin  
gure Donosti maitian.

Negu gogorra joan da ondoren  
uda berriyak pozturik,  
arrantzale ta beste geyago  
kai inguruban nasturik;  
jira ta bira eta algaraz  
bata bestien ondotik,  
zar da gaztiak dantzaz dabilza  
barrengo penak azturik.

### **Santa Zezilia**

Soñu jotzalle onak pozkiro  
Ala ere kantariyak,  
Alkarturikan non nai dantzari  
Erotu narik guziyak;  
Batek iriñtzi bestia uju  
Zar bizkor, da gazteriyak,  
Buru eztalki gorriyarekin  
Oso egoki jantziyak,  
Santa Zeziliak bedinkatuak  
¡Chit seme maitagarriyak!  
Aingueru ordez abek nai ditu  
¡Gura Jaungoiko aundiak!

## Santo Tomas

Gaurko egunez onera dira  
chit toki askotatikan,  
kapoi ederrak erakutziaz  
bizkarretik sinsilikan;  
batzubek datoz goyarritikan  
beste asko emendikan,  
urte guztiko eche errenta  
berekin dutelarikan,  
nagusi jauna ikusi arte  
ezdutelarik onikan;  
ekarritako danak utzita  
jirachua emanikan,  
bakollo gabe ezdezu joango  
emendik bat bakarrikan.

Donostiyako plaza zarrian  
konseju-eche aurrian,  
jendia errus erdiyan eta  
alatzure arkupian;  
chilibitu ta tambor soñua  
gortu azteko añian,  
neska mutillak iji ta aja  
esku emanik kalian,  
aiton pipadun mushu gorriya  
irrintziz egiñ alian,  
goizetik arrats erri guztiya  
darukatela aidian,  
erotzen dute orko musikak  
Santo Tomas egunian.

Santo Tomas-eko feriya da  
chorishua ta ogiyya,  
ara gaur plazan sutan ta ketan  
zirt zart bada zartagiya;  
¡O! oliyuak diruriyela  
pintura gorrigorriya,  
eta onela dezu neretzat  
saltzen dagoan guztiya,  
abarka shapi eskalaproiyak  
eta milla chucheriya,

mutill koskorak jostatutzeko  
degu egun egokiya,  
biyotz tristiak alaitutzeko  
utzi beti Donostiya.

## Santo Tomas-etan Donostiyan

Antziñetako usariyua  
dezu Donosti maitian,  
jostallu saltzen jartzia bada  
Santo Tomas iriztian;  
nola jostallu beste geyago  
asko badiran tartian,  
len lenagoko plazan saldutzen  
diranak oraiñ artian.

Donostiyara etortzen dira  
egun batzubek aurretik,  
usariyu au ez galtzi arren  
asko bada Goyerritik;  
eltze burnizko edo tupiki  
chiki ta aundi arturik,  
nola zartagi, aspo, krisallu  
danak emen saldu nairik.

Beste batzubek saltzen dituzte  
sega, eitai ta aizkorak,  
achur ta layak, mallu, trabezak,  
ginbaleta t'iru ortzak;  
krispi, parrillak, burruntzaliyak  
eta burnizko laratzak,  
goaize aundi, pazi ederrak,  
kanibetak chit zorrotzak.

Talo burniyak ta danboliñak  
palak ere egokiyak,  
ta akulluak aukerakuak  
chikiyak eta aundiya;  
kopetekuak, ganadu larru,  
leporako zintzarriyak;  
bai eta ere eskuz egiñak  
alakošeko uztarriyak.

Goardasol urdiñ famelikuak  
lengo lege zarrekuak,  
abarka narru eta šapiyak,  
sokak naidan luzekuak;  
ta eskopetak Eibar aldetik  
onuntz ekarritakuak,  
nai bada kañu batekuak ta  
ala nai bada bikuak.

Beste jostallu oyetatikan  
ezda esan biarrikan,  
zeren ikusten diran mutillak  
pozak zoratu nairikan;  
kalerik kale erri guziyan  
danborrekin lepotikan,  
beste batzubek chistua juaz  
dituztela ondotikan.

Egun sentitik arratsartian  
plaza dago beti ketan,  
iruditzendu ari dirala  
Ingeles-Boer zak sutan;  
San Martiñatik usaya berriz  
igartzen da sugurretan,  
zirt zart zartagi soñu galantak  
aditurik legubetan.

Baldiñ ezpadu Santo Tomasez  
batek chorišorik jaten,  
egun urašen urte guziyan  
etzayo noski aztutzen;  
bañan plazatik baldin badizu  
zaleturikan erosten,  
berriz geyago jango dubenik  
etzait neri iruditzen.

*Euskal Erria*, 1901, XLV,  
568-569. or.

### **Soka muturra**

Nola uda berriyan  
ta egun sentiyan,  
chori chikiyak iñoiz  
daudenak kabiyan  
bere amari deika  
pipika agiyan,  
gu ere ala gaude  
oraiñ Donostiyan.

Gure barrenak daude  
choriyan moduan,  
edo esan nai nuke  
iya alatsuan;  
idi jolasa beti  
arturik buruan,  
guziyari galdezka  
galbitzan lekuan.

*Euskal Erria*, 1896, XXXIV, 49. or.



## 2. Euskal Herria eta euskara

### **Angerubak kantari**

Eskolatikan gatoz  
zoratu nayian,  
pozaz kantatutzero  
Arbolen aurrian;  
Iparragirren kanta  
doñu ederrian,  
sonurik alayena  
gure lur maitian.

Zuri Arbol Santua  
naiz chikitandikan,  
danak maite zaitugu  
biyotz barrendikan;  
ezdalo ko munduan  
Arbol oberikan,  
pakian bizitzeko  
alkar arturikan.

### **Aiton bat eta ni**

Donostiyatik Oyarzunara  
bakar bakarrikan joanik,  
nere denboran ezditut pasa  
alakošeko egunik;  
baserricho bat ikusi eta  
arañon irichi nairik,  
abiya nitzan betikan gora  
egualdi onak pozturik,  
ez nuen uste bide aiyetan  
alako gauzik zegonik,  
urte batzuek igaro arren  
oroitutzen naiz oraindik.

Gaztañ arbolak chit sall aundiyak  
piku eta gereziyak,  
udare gazte azi berriyak  
inguruban sagastiyak,  
elurra egin balu bezela  
lore zuriz estaliyak,  
ala ikusi nituben bada  
ango alderdi guztiyak,  
sasi tartian kantari berriz  
išildu gabe choriyak;  
batek gustora begiratzeko  
aiyechekek dira tokiyak.

Baserrirañon irichi eta  
arrire begiraturik  
arriturikan gelditu nitzan  
ura ala ikusirik;  
eche zarra zan, oroitutzen naiz  
askotan ere geroztik  
nola zegoan untzaz gañetik  
dana oso estalirik;  
ala negola aiton bat irten  
neregana zan atetik,  
eta galdetu ziran aitonak  
¿aldakizu euskerarik?

Aiton arrenchen leyaltasuna  
ainbesteraño izanik  
bere onduan ešeri nitzan  
saski zarcho bat arturik:  
ez nuen uste naiz entzun arren  
alako euskaldunik zanik,  
ura atsegiñ zoragarriya  
an iruki nubena nik,  
etziran beste gauzik esaten  
eskubetatik eldurik:  
larogei urte baditut bañan  
etzait aztu euskerarik.

Galdetu niyon: aita, beorrek  
urte asko ditularik  
¿mundu onetan euskera baño  
alda izkuntza oberik?  
erantzun ziran kolore zuri  
zitubenak gorriturik:  
orlako gauziz ez neri esan,  
(besuak gora jasorik),  
ezda izandu, ezda izango  
zuri esaten dizut nik,  
orain ta gero ama euskera  
berdintzeko itzkuntzarik.

Beorrek ere chit ondo daki,  
aitona, aspalditikan  
ama euskera nola dabillen  
arrunt iya galdurikan:  
bere denboran bizitu dana  
eziñ gora jasorikan  
oraiñ bezela etzubelarik  
etsaiyarik ondotikan  
lenago gaizki balin badago  
gaizkiyo jarri nairikan,  
beti betiko nai lutekenak  
ebaki zañetatikan.

Chutik ikasi baño lenago  
entzuten dira itzketan  
erdal-erriyen antza emanik  
asko amen besuetan;  
gure izkuntza atzentzen aida  
aspaldiko urtietan,  
sinistu bedit aiton leyala  
esaten diyot benetan,  
au nabaiturik iñoiz egoten  
naizela oso penetan,  
oroiturikan orlako gauzik  
etzala nere gaztetan.

Batek euskera entzun naibadu,  
aitona, zait iruditzen  
mendi aldia baño oberik  
zalla dala topatutzen;

erriyan beste gauzarik ezda  
alde danetan aditzen,  
erdera dabil bazter guztiyak  
aspalditikan nastutzen,  
ama euskera estali nairik  
asko dira sayatutzen,  
orreatatik esaten diyot  
naizela bada bildurtzen.

Erantzun ziran: ama euskera  
ezda aztuko iñondik  
leku askotan dakitelako  
euskal-erriyan oraindik;  
indar geiyago artu lezake  
gaur orla egonagatik,  
seme jatorrak asten bazaizka  
laguntzen aldamenetik;  
zarra naiz, bañan oraindikere  
nik beintzat nere aldetik  
zaituko diyot bizitu dedin  
beste guztiyen gañetik.

Aita, beorrek bezela beti  
nik ere nai det euskera,  
ez det ikasi nik oraindikan  
zale ez naizen erdera;  
ez det damurik gaur etorriya  
Donostiyatik onera  
etzairalako lagun oberik  
etorri aldamenera;  
penaz nijua esaten diyot  
goitikan beera ostera  
agur, aitona, urrena artian,  
berriz ikusiko gera.

*Euskal Erria*, 1900, XLIII,  
268-270. or.

Berrogei ta amar pezetako aldeera  
eta bitezarra Zumayan irabazitako  
moldaera

### **Ama-euskera**

Euskal-erriyan jayo geranak  
eta chikitandik azi  
Ama euskera orain artian  
ikasi degu lenbizi;  
izkuntza eder an aurrera ere  
beti izango da nausi,  
seme batzubek ibilli arren  
albaluteke galazi.

Orlako seme buru gogorak  
danak dizute merezi  
Ebroz aruntzidik bigaldutzia  
eta sartutza ez utzi;  
pake onian naidegulako  
oyek gabetandik bizi  
Ama euskera ta lege zarrak  
maitaturikan lenbizi.

*Euskal Erria*, 1901, XLV, 458. or.

gogoan daukalako  
beti Jaungoikoa.

Euskaldun onak daki  
itzkuntz au bakarrik,  
eta eztu maitatzen  
bat ere besterik;  
galdetutzen bazaio  
ote dan oberik,  
ezetz, esango dio  
biotzan erditik.

Gu ere ala izan  
bagiñan guztiak,  
etziran orla egongo  
gaur Euskalerrriak;  
erdaldun biurturik  
gaude, ta erdiak,  
oitura zarrak laga  
ta arturik berriak.

*Euskalzale*, 1899, III, 363-364. or.

### **Au da euskalduna**

Lau orduko bidean  
jeisten da etšetik,  
dituen seme danak  
ondotik arturik;  
naiz elurrez mendiak  
egon eztairik,  
igande ta jaietan  
eztu usten mezik.

Euskalduna berez da  
biotz onekoa,  
eta bestetik berriz  
oso fedetsua;  
orreatatik egiten  
maiz du errezua,

### **¡Betoz gure lege zarrak!**

Lenago alai bizi giñanak  
arkitzen gera gaur erí,  
indar guziyak alde egiñ da  
iya gerala erori;  
erdi negarrez begiratuaz  
bada bata bestiari,  
gauzik onenak bestek artuta  
gure Euskal-erriya-ri.

Euskal-erriko libertade ta  
legiak eta euskera,  
aspaldichotik zorrotz dabilta  
sartu nayian lurpera;  
eziñ ikusi gaituzten asko  
etorririkan onera,

berak balira jabe bezela  
besterik agiñdutzer.

Alper, alperrik sayatzen dira  
ezda galduko euskerik,  
euskal erriyan nimitzatukoda  
askochok nai esagatik;  
aitorren seme euskal jatorrak  
gaudez ta konturaturik,  
lenago lotan bezela oraiñ  
arrunt oso ernaiturik.

Ordua zan ta alkartu gera  
euskaldun onak alare,  
ezaguturik nai dizutela  
egiñ gure lurren jabe;  
gaurtik aurrera leku charrera  
¡O! etorriko dirade,  
zeren arpegi emango degun  
bate bildurrikan gabe.

### **Bizi bedi euskera**

#### AZALKAYA

Euskera loretutzen  
egiñ alegiña  
etorri bañago len  
mintzatu eziña.

Aspaldichotik negarrez dago  
Ama euskera gaišua;  
Jaunak zerutik egan onuntza  
bigaldutako ušua;  
bizitu zana zabaldurikan  
alako usai gošua,  
gallen egiñik urte askotan  
beti buruba jasua;  
esanaz ni naiz lurbironetan  
itzkuntz guzien maisua.

Nora nai joan da lotzatu gabe  
mintzatu zagun euskera,  
itzkuntz eder au sartu bañolen  
beti betiko lurpera;  
Aitorren seme leyal zintzuak  
baldiñ zayatzen bagera,  
laister gentzake tente ikusi  
loreturikan oster; eta  
orduban esango degu  
jaunak euskaldunak gera.

Aurrera beti bizitu dediñ  
Ama euskera maitia,  
ez degu kalte arreta aundiz  
ondotikan zaitutzia;  
gerta liteke garai charrian  
malkoak azaldutzia,  
bada orduban zalla litzake  
berriro loretutzia;  
eta gañera Euskal-erriyan  
luzaro mintzatutzia.

Gaur gurasuak Ama euskera  
aurrari erakutzirik,  
iraun lezake urte batzubek  
oso aztu gabetandik;  
oraindik ere itzkuntz eder au  
badator mendi aldetik,  
bañan erriyan mutill da neskak  
ikasi orduko zutik,  
amarretatik boztek beñepin  
apenez dakiten tutik.

Euskal-errira seaskachotik  
legez etorri geranak,  
itzkuntz au bada bularretikan  
laxandurikan edanak;  
egin zaizkigun biar bezela  
aiton zar ayen esanak,  
ezdubelako onik beñere  
geroko usten dan lanak,  
Ama euskera jakin dezaten  
emen jayotzen diranak.



Aurak euskera ezdakitela  
azten baldiñ baditugu,  
era luzea igaro bañen  
len galduko gerade gu;  
eta orduban biziko gera  
biyotzak arturikan su,  
batak bestiai galdeturikan  
¿gure izkuntza non degu?  
¡oroitz triste au Euskal-erritik  
iñork kenduko ezdigu!

*Euskal Erria*, 1916, LXXIV,  
206. or.

(Azkeneko indar-neurtzeetan  
Aipamen onragarriya irabazia.)

### **Buruz azkarra**

Menditikan kalera  
maiz etortzen dana,  
ta Donostiya asko  
maitatzen dubana;  
au da gizon zarcho bat  
beti ari dana,  
Ama euskeren alde  
eragiten lana,  
eta berak egiten  
ondo dakiyena,  
esanaz baserriya  
¡Jesús gure Jauna!  
da itzkuntz eder onen  
aita eta ama.

Donosti ederrian  
sartzen danerako,  
eta zerbait esaten  
azi ordurako,  
galdetubaz euskeraz  
bai alda orlako,

erosita emendik  
nik eramateko,  
guchi topatzen ditu  
gaur erantzuteko,  
ala biar bezela  
biyak mintzatzeko,  
lotsaz echeratzen da  
bada esateko.

Askotan esaten du  
gure Donostiya  
erri ederra dago  
eta egokiya;  
bañan gauza bat dauka  
oso itzuziyya,  
Ama euskera galdu  
egin dala iyya,  
euskaldunentzat dala  
pikardi aundiyya,  
ondo pentzaturikan  
chit negargarriyya,  
Jaungoikua dalako  
guretzat utziyya.

Topatu nai dubenak  
beti osasuna,  
emendik eunkita  
ere euskalduna,  
bada an izango da  
bai baso gizona,  
euskera ta fueruak  
maitatzen dituna,  
nekazari zintzua  
gaitzik ezdizuna,  
erdaldunik ikusi  
gaur nai ezdituna,  
baizik Jaungoikua ta  
¡o! naitasuna.

*Baserritarra*, 1909-05-22, 121. zk.

### ¡Euskaldun bat negarrez!

Arbol santubaren itzalian  
belaunak lurreraturik,  
Aitorren seme euskal jatorra  
triste ikusi nuben nik;  
negarta negar ziyola bada  
besuak gora jatorik,  
-¡Ama euskera eta fueruak  
galdu ziran ezkeroztik,  
Euskal-erriyan bizi gaituzu  
oso lur pian sarturik!

Euskal-erriko lege santuak  
bai ta ere ontasunak,  
bata bestiai lagundurikan  
beti emen genitunak;  
baserritar ta kaletarraren  
fedesko alkartasunak,  
danak galduta bizi gaituzu  
aspalditik euskaldunak,  
oroimengarri bada guretzat  
Jaunak eman zizkigunak.

Arbol maitian ni bizi nazu  
emendikan ezkutuan,  
bai, jayo nitzan ezkeroztikan  
mendi bieren chuluan;  
zayatu arren beste lanetan  
beti zaukaizkit goguan,  
nayago nuke bada banego  
gaut egun zure onduan,  
banua bañan... etorriko naiz  
berriz aldetan orduan.

-Ama euskera ta lege zarrak  
gaizki ikusiyagatik  
aiton orrechek oraindik ere  
maite ditu biyotzetik;  
negarrez joan zan andik alchata  
arbolai agur egiñik,

esanaz bada, leno bezela  
ezdago ez euskaldunik,  
ainguchi ere alkarrengana  
batera anaitasunik.

Negarrez bada ostoa piartan  
au esan zuben aitonak,  
-¡O! zer guchi aitortzen duten  
orain emen euskaldunak;  
Euskal-erriyan noletan galdu  
diran beren zorionak,  
zerutik onuntz aingeruchoak,  
bai ekarri zizkigunak  
alai ta pozaz bizitzi arren  
izen eder au degunak.

-Neroni ere tristetu nitzan  
oso, bere ondorian,  
negarrez gizon buru auri bat  
an ikusi nubenian;  
arren esanak geroztik dauzkat  
gorderikan barrenian,  
ezda milagro ¡o! euskaldunak  
gauz abek oroitutzian,  
lege santuak maite baditu  
miñ artzia biyotzian.

*La Euskaria*, 124 zk., 1909-01-02

### ¡Euskaldun maitiak! (I)

Gure lore ederra  
itzkuntza maitia,  
zure galdezka dago  
Euskaldun jendia;  
aspaldichoan zaudez  
chokoan gordia,  
ostoa berdietatik  
azaldu zaitia.

¡O! Euskaldun maitiak  
ezdet nai azaldu,  
zerengatikan zubek  
nai nazuten galdu;  
baldin nai banazute  
guziak maitatu,  
gaztelaniz ez iñoiz  
geiago mintzatu.

Ama da len ta bizi  
alde guzietan,  
itzkuntza au bezela  
Euskal-errietan;  
orain zubekiñ nai det  
asi errietan,  
¿zertan naukazute ni  
chokoan penetan?

Igartzen dizutet nik  
orain Euskaldunak,  
arras galdu dirala  
zuben zori onak;  
gaur ez daude begira  
gure aita onak,  
aiyek ziraden bada  
Euskaldun jatorrak.

Maita dezagun bada  
amacho euskera,  
azturikan betiko  
dabillen erdera;  
gaurko bide charrean  
baguaz aurrera,  
sarri sartuko gera  
guziok lurpera.

Euskaldunak izan ta  
zuen itzkuntza utzi,  
¿nola diabru bada  
nai dezute bizi?  
eztezute besterik  
batere merezi,

ezpada erdaldunak  
jartzia aagusi.

*Euskal Erria*, 1893, XXVIII, 379.  
or.

## ¡Euskaldun maitiak! (II)

Beso zabalik gora begira  
belaunak lurreraturik,  
erregututzen Jaungoikoari  
jarrita negubelarik;  
dear triste bat nerega zan  
eta ustez urrutitik,  
esanaz bada, Ama euskera  
seme bizi da orandik,  
zritu nazute garaya da ta  
¡o! erori gabetandik,  
zeren dabiltzan aspaldichotik  
etsayak beti ondotik.

Ama euskera biyotzetikan  
maita degun euskaldunak,  
alde danetan gizon jatorrak  
eta oso ezagunak;  
izkuntz eder au oraindik ere  
emen miñtsatzen degunak  
gauzak egiten biar bezela  
berdiñak ezdegunak,  
antziñetako legiak gorde  
orain arte ditugunak,  
aurrera ere zaitu ditzagun  
diralako chit gauz onak.

Ama euskera ta lege zarrac  
zutik dauden bitartian,  
Euskal-erriyan biziko gera  
euskaldun danak pakian;  
ernai gaude zen bateturikan  
mendiyan eta kalian,

geren buruak ikusi gabe  
etsai gaiztuben mendian,  
damuturikan ¡negar ta negar!  
bada denbora joanianian,  
ezin geyago al oha eziñik  
oso sarturik lurpian.

Ama euskeren dear tristea  
biyotzian gorderikan,  
eta itzkuntz au guría dala  
danok ondo jakinikan;  
alai aurrera biziko gera  
penak oso azturikan,  
Amen esanak arreta aundiz  
euskaldunak egiñikan,  
etsayak zorrotz ibilli arren  
gal du nairik ondotikan,  
antziñetako legiak beti  
maite ditugularikan.

### **Euskalduna**

Ama Euskaren seme  
biyotz onekuak  
Euskaraz mintzatzera  
Jaunak bialduak  
arbolcho maite baten  
osto tartekuak  
iñon zorrik gabiak  
orain dañokuak.

Gure Ama Euskara  
dago biarrian  
aspaldicho gaišua  
chic planta charrian  
nola bat egoten dan  
laguntza nayian  
semechuari deika  
seask barrenian.

Gure Ama Euskara  
chit maite maitia  
neroni kupitzen naiz  
orla ikustia,  
aspaldicho or zaude  
chokuan lajia  
ondo merezi dezu  
danok laguntzia.

Poztu zaitez Euskara  
gaurtikan aurrera  
danok bagatoz eta  
zuri laguntzera,  
baldiñ oraiñ artian  
bai, triste bagera  
len bezela badakit  
zu jarriko zera.

Bakoitzak egiñ zagun  
oraiñ aldeguna  
gure biyotza dala  
danentzat chit ona;  
gure Euskarak nairik  
ondoren laguna  
emen ezautuko da  
zeiñ dan euskalduna.

*Euskal Erria*, 1896, XXXV, 558. or.

### **Euskalerraren alde**

Aurrera ere beti bezela  
Egingo det alegiña,  
Gaztetandikan datorkit eta  
Euskal jatorraren griña;  
Nayago nuke anai guziyok  
Emen onela bagiña,  
Sendatziarren Euskalerriak  
Orain senti duben miña.

Gu eguzkiyak berotzen gaitu  
Uda ta negu zerutik,  
Eta choriyak pozaz kantari  
Jarri azitzen goizetik;  
Ni ere ala ariko nazu  
Luma eskuban arturik,  
Bizi ditezen Euskalerrriak  
Beste guziyen gañetik.

Uda-berriyan likort ederrak  
Zabaltzen ditu baratsak,  
Eta alaitzen gaitu gozoro  
Biartsu ta aberatsak;  
Ala pozkiro nai nituke nik  
Emen iruki biyotzak,  
Euskalerrrian bateturikan  
Bizi ezgaitian lotsak.

Beti izan da izango nazu  
Gure lege zarren zale,  
Eta ondolik zaituko ditu  
Arrunt pozturikan ale;  
Maite ditutan iñork egiten  
Baldiñ badit neri galde,  
Esango diyot; ¡Bai illartian!  
Euskalerrriaren alde.

### ¡Euskera gañua!

AZALKAYA:  
Iraun dezan luzaro  
euskerak munduan,  
zaitutzen euskaldunak  
gaudezen onduan

Ardi galduben gisa  
gaur dabill euskera,  
aspalditik utzirik  
chit alde batera;

eta alaz guztize  
kupitzen ez gera,  
ikusirik noletan  
dijuan lurpera.

Euskal-erriyan jayo  
ta bizi geranak,  
zuzen egin ditzagun  
zar ayen ezanak;  
arretaz arturikan  
utzitako lanak,  
euskera biar dala  
badakigu danak.

Euskera erakusten  
zayatu gaitian  
aurrari gurasuak  
gaut'egun echian;  
danak jakin dezaten  
azten diranian,  
lotsarik artu gabe  
iñork galdetzian.

Amaren bularretik  
da datorkiguna,  
izkuntz lurbironetan  
berdiñik ezduna;  
beste guziyen buru  
ezautu deguna,  
orain leno bezela  
jarri naidizana.

Euskera oraindikan  
dago baserriyan,  
orrela zabaltzagun  
lenbailen erriyan;  
mintza dezagun beti  
gabiltzan tokiyan,  
ikusi ez dezaten  
iya eroriyan.

Euskaldun on leyalak  
emen alkarturik,

eta Ama euskera  
danak maitaturik;  
azalduko da laister  
oso indarturik,  
semeari dearka  
besoak zabalik.

Negarrez egon gabe  
euskaldun jatorrak,  
ez algera izango  
ain buru gogorak;  
asko bagaituzuta  
chit gizon pizkorrak  
euskeraz jarritzeko  
bai mutill koskorrak.

Chit atzenduko balitz  
euskera maitia,  
poztuko litzake, bai,  
erdaldun jendia;  
on dezu guretzako  
ori jakitia,  
berak erakuztendu  
ernai egotia.

Kendu nairikan guri  
dabiltza izkuntza,  
etorritako asko  
Ebrotik onuntza;  
zerbait irabaziko  
baluteke, utza,  
orreatatik euskerak  
nai dizu laguntza.

Itzasoak nola dun  
berez ur gaziya,  
izkuntz onek betiko  
aladu biziza;  
naiz etorri, Luzifer  
diabruz jantziya,  
Jaun aundiyak dalako  
guretzat utziya.

Jaunen borondatia  
galanta dalako;  
euskera gabetandik  
ez gaitu lajako;  
berarekin gaudezen  
danok ortarako,  
laguntz ederragorik  
ezdizu gulako.

Koroi bat beselašen  
lorenz apaindua,  
beti darabilkina  
chit usai gošua;  
Jaunak bigaldutako  
zeruko ušua,  
guazen laztandutzero  
¡Euskera gašua!

*Euskal Erria*, 1914, LXX, 63-64. or.

(Azkeneko indar-neurtzeetan  
aldeera irabazia,)

### **Euskera mendiyen**

Etsayak naiz ibilli  
emen aspaldiyan,  
itzkuntz au sartu nairik  
bada lur azpiyan;  
alperrikan zayatu  
litezke agiyan,  
nabaitu arren zerbait  
atzentzen erriyan;  
edo mutill koskorrak  
karriken erdiyan,  
erderaz geyenian  
dabiltzan tokiyan  
bañan mintzatzendute  
euskera mendiyen.

Errezuak egiten  
dira baserriyan,  
beren otordubetan  
asteko guziyan;  
goizian da gabian  
ala eguardiyan,  
oyeratzekuanda  
ta jeike berriyan  
beste gauzarik gabe  
aiñ fede garbiyan  
eta bizidituzu  
Jaunaren graziyan  
maite dizutelarik  
euskera mendiyen.

Naiz arkituagatik  
askotan premiyan,  
zelayera dijubaz  
bai egun sentiyan;  
eramanikan gauzak  
arañon gurdiyan,  
loturik ganaduak  
beren uztarriyan;  
zayatzen diralarik  
chit gogo aundiyan  
achur da layarekin  
naiz negu gorriyan,  
aditzen zayotela  
euskera mendiyen.

Itzkuntz aun egon arren  
iya eroriyan,  
laguntza eskatubaz  
negarrez Uriyan,  
emendikan chit bide  
motz edo urriyan;  
esanaz konten gaudez  
gu geren kabiyan  
gurazo zarrak utzi  
zuten alderdiyan  
beti naidizugula  
euskera mendiyen.

Esan arren batzubek  
beren errabiyan,  
onuntza etorriyak  
tenez ó ontziyan;  
ontaz jabetu nairik  
diabruz jantziyan,  
miñ artzen dizutela  
beti belarriyan,  
itzkuntz au entzutian  
gure atariyan;  
puzkateko ba daudez  
nere irichiyan,  
gordeko dutelako  
Euskera mendiyen.

Euskaldunak gaudezen  
zaitzen ó guardiyan,  
bestiak begiratu  
zaten inbiriyan;  
azaldu bañago len  
malkoak begiyan,  
asko dabiltzalako  
iltzeko zoriyan;  
ondotik ditugula  
kolera biziyan  
legoyak bezelatzen  
izkuntzen zurriyan,  
lenbailen galdu nairik  
Euskera mendiyen.

### **Izkuntza maitea**

Nola kabi bat ostoa tartian  
egoten dan estaliya,  
oraiñ alatsu arkitutzen da  
bai gure Euskal-erriya;  
chori chikiya egatu nairik  
eta lumen eskasiya  
Ama euskara alašen dago  
aspaldichoan jarriya.

Udaberritik asitzen dira  
kanpo guziyak edertzen,  
bada ni gaurtik asiko nazu  
Ama euskara zabaltzen;  
ikusten dizut oso chokuan  
bildurrez dala arkitzen,  
oroitu utsak begiyetara  
malkoak dizkit azaltzen.

Non degu oraiñ antziñetako  
Ama euskera guria,  
non dagon bada galdetzen dizut  
non otedagon gordia,  
nik ondo dakit gaur non dagoan  
ezdet lotsik esatia,  
beste batzuek estali dute  
gure itzkuntza maitia.

Estali dute bañan ez ondo  
ezda oraiñdikan aztu,  
anai maitiak nere gisara  
guziyak oraiñ lagundu;  
gure itzkuntza paregabia  
garbi biarda azaldu,  
bestela esan bearko degu  
Euskal-erriya da galdu.

*Euskal Erria*, 1895, XXXII, 243. or.

### **Lege zarrak ta euskera**

Lañu beltz batek eztalirikan  
gaur dago Euskal-erriya,  
lenago alai bizitzen zana  
negar ta negar jarriya;  
lege santuak iya galduan  
eta euskera garbiya,  
orain artian izandu dana  
itzkuntz danen eguzkiya.

Euskal-erriko semiak beti

beren lur maiti abetan,  
bizi ziraden pozkiro eta  
gaut egun gozamenetan;  
ta aspalditik arkitzen dira  
malkoakin begiyetan,  
umill da triste, oso argalak  
indarrrik gabe ezertan.

¿Oraiñ non dira antziñetako  
Euskal-erriko legiak,  
anaitasunez bizi giñak  
lore ederrez betiak;  
pake gozoa alde danetan  
aberats eta pobriak;  
batek bestiai lagun egiñaz  
aurren ondo izatiak?

Ezin sinistu lezake batek  
urte guchitik onera,  
nola atzendu diraden emen  
legiak eta euskera;  
eta gañera jakiña dago  
orla baguaz aurrera,  
Euskal-erriya ta euskaldunak  
betiko galduko gera.

Ama euskera miñtza gozoro  
lege santuak maitatu,  
lurrera oso erori gabe  
aldamenetikan zaitu;  
eta gaur daukagun alñu betz au  
danak kentzera zayatu,  
Euskal-erriyan bestek ez de zan  
orain bezela agindu.

¡O! gu lotsetan bizitu gabe  
onela geran echian,  
Euskal-erriko seme argiyak  
len bailen alkargaitian;  
biyotz barrendik fedez esanaz  
mundu guziyen aurrian,  
Ama euskera ezda galduko  
zutik gauden bitartian.



## Miñtza Euskera

Ama euskerak azaldu nairik  
illunpetatik argira,  
negarrez dago aspaldichotik  
alde daneta begira;  
iñoz malkuak dariyolarik  
¡O! gajuak arpegira,  
beso zabalik oju ta oju  
¡nere semiak non dira!

¡O! Ama euskera daukaguta  
eztuta bizi larriyan,  
alkar gaitezen semeontzuak  
bere magal maitatiyan;  
esanaz ¡Ama doakabea!  
zaitutzen gaudez aldian,  
alai ikusi nai zaitugunak  
edo lengoko antzian.

Euskaldun danok maite gerala  
maintzaturikan euskera,  
leno bezela laister jarriko  
buru dizugu ostera;  
lotsarik gabe non nai esanaz  
illarte euskaldun gera,  
etorri arren kopet illunak  
asko aurreko aldera.

Euskera bañon lenago galdu  
biar dizugu biziya,  
chikitandikan dalako guri  
itzkuntz au erakutziya;  
Euskal-erriyan miñtzatu dedin  
antziñetatik utziya,  
lagun zaiguzu kupiturikan  
gaurtik Jaungoiko aundiya.

Ama euskera itzkuntz danaren  
buru izan dana beti,  
Aitorren seme euskal jatorrak  
izan gaitian erruki;

eutzi zayogun anai maitiak  
galdu gabetandik aurki,  
Euskal erriyan bada bestela  
biziko gaituzu gaizki.

Larramendi eta Jaizkibel  
gizon oso jakintzuak,  
¡o! gaur azalduko balitu bai  
berriz onuntz Jaungokuak;  
laister lirake ayen begitik,  
ginga añako malkuak  
diyotelarik ¡o! zer egindu  
¡Ama euskera gashuak!

*La Euskaria*, 1909-06-19, 146. zk.

## Mintzatu euskera (I)

Euskera egunaz da  
euskera gabian,  
nola baserriyan da  
erri barrenian;  
oso zabaldu dediñ  
itzkuntz au danian,  
zar da gaztiak beti  
aditu gaitian.

Oitubera zar danak  
Euskal-erritikan,  
ezdituzte kenduko  
beren sañetikan;  
egongo diralako  
beti zut zutikan,  
euskera mintzatubaz  
nora nai joanikan.

Guziyok mintza zagun  
pozkiro euskera,  
naiz etorri erozeñ  
aurreko aldera;

biyotzetik esanaz  
euskaldunak gera,  
illarte beti maite  
degunak bandera.

Gure lege santuak  
galdu ezditzagun  
erdaldunak egin  
ez gaitezen lagun;  
Euskal-erriyan beti  
arki gaiten chukun,  
euskaldunak dania  
gerala ezagun.

*Baserritarra*, 1909-09-25, 130. zk.

## **Mintzatu euskera (II)**

Emen bertako seme  
asko galarik,  
euskeraz dakigunak  
oso chikitandik;  
erderaz asten gera  
nonbait alkaturik,  
¿zer dezu guretzako  
gauz ederragorik  
izkuntz au mintzatzia  
mundu ontan baizik?  
nora nai joan ta ere  
artu gabe lotzik.

Gure izkuntz eder au  
zabaltzen oztera,  
zayatu gaitez denok  
gaurtikan aurrera;  
erdera utzirikan  
erriyoz bestera,  
lotzik gabe esanaz  
euskaldunak gera;  
bizitzera joan arren  
oso apartera,

anai maitiak beti  
mintzatu euskera.

*El Pueblo Vasco*, 1912-10-20

## **Nere ametsa**

Ikusi ditut arrats batian  
Lo artu dizutalarik,  
Euskal-erriko mendi alayak  
Belar ta lorez beterik.  
Ta inguruko baserri-eche  
Zar guziyak berriturik,  
Elurra bezin zuri zuriyak,  
Arrunt oso apaindurik.

Gauza guziyak apañ ikusten  
Nituen goyan ta bian,  
Nola zeruban ala lurrian  
Bai eta ere urian;  
Ontzi chikiyak eta aundiyak  
Obek uraren gañian,  
Ušo zuriyak ematen zuten  
Danak itsas zabalían.

Ezkillen otsak entzun nituben  
Alakošeko alayak  
Esan nairikan Euskal-erritik  
Joan ziradela etsaiyak;  
Emen bakarrik bizi giñala  
Maitatzen geran anayak,  
Aitorren seme paregabiak  
Beti leyal ta ernayak.

Jajai algaraz iji ajaka  
Irrintzi eta kantuban,  
Aberats, pobre, zar eta gazte  
Bata bestien onduban;  
Neska, mutillak, atso, agure,  
Dantzari chunchun soñuban,

Ala aritu ziran luzaro  
Euskal-erriko doñuban.

Etzan erdara iñon aditzen,  
Izkuntz eder aušen baizik,  
Nola mendiyen, ala kalian  
Alde danetara joanik;  
Etsai gaistuak bigaldurikan  
Gelditu giñan bakarrik,  
Euskal-erriko seme jatorrak  
Alkarri laztandu nairik.

Lotan luzaro egondu eta  
Esna jarri nitzanian  
Gauz obek danak burura jayo  
Eta bere ondorian,  
Leyotik berriz mendi aldera  
Begiratu nubenian  
Izugarrizko pena bat artu  
Nuben nere barrenian.

Amets gozu au egiñ nubela  
Konturatu nitzanian,  
Eta etsaiyak bada berriro  
Ikusi aurreko aldian,  
Pozikan apurtuko nituben  
Orduban Jesús batian  
Euskal-errian leno bezela  
Bizitze arren pakian.

Euskaren ordez erdera oraiñ  
Entzuten dizutanian,  
Alde batera edo bestera  
Kalian nijubanian,  
Sutan jartzen naiz nere ametsaz  
Oroitutzen naizenian,  
Ikusirikan izkuntz eder au  
Iya sarturik lurpian.

Antziñetako lege maitiak  
Eta ondoren euskera,  
Nabaiturikan Jaungoiko onak  
Gaur dijubazela beera,

Kupiturikan etorriko da  
Zerubetatik onera,  
Euskal-erriyak leno bezela  
Zutik berriro jartzera.

Oraiñ bezela guziyok baldin  
Fedez ibiltzen bagera,  
Gure Jaunari erregutzera  
Joanik aurreko aldera,  
Laister ditugu Euskal-erriyan  
Apaindurikan ostera,  
Etsai gaistuak bigaldurikan,  
Legiak eta euskera.

Gure Jaunentzat nola ezdezun  
Ezercho gauza zallikan,  
Eta laguntzen nola dakiyen  
Oraiñ artian lendikan,  
Esan bezela berai otoitzak  
Barrendikan egiñikan,  
Euskal-erriyan biziko gera  
Danok ondo oraindikan.

*Euskal Erria*, 1902, XLVII, 304-306. or.

Aipamen onragarriya Oñati-n  
irabazitako moldaera

### **Ušo bat mandatariya**

Zuri ta beltez lumaz jantziya  
pantasiosa aundiya,  
pecho gañ dana pintarratua  
pauso motz ibilkariya;  
ez dakit nondik Donostiyara  
eta noizdik etorriya,  
auda lenguan ikusi nuen  
ušo bat mandatariya.

Buru tentia, begi alaya  
zillarra bezin garbiya,  
iñola geldik ezin egona  
eta isatz dantzariya;  
dama polit bat ziduriyena  
onera sartu berriya,  
¡zeñen ederki Konchan jostatzen  
zan ušo mandatariya!

Arri begira arreta aundiz  
aspertu nitzala iya,  
mokuen puntan ikusi niyon  
paper puška bat oriya;  
alki gañian utzita joantzan  
kontuz ara ekarriya,  
egan laisterka betikan gora,  
bai uso mandatariya.

Alki gañetik jaso nuen da  
¡ai ura nere larriya!  
paper puškura letra chiekin  
ikusirikan guziya;  
bada zekarren guri esanaz  
zaitzeko Euskal-erriya,  
Jaunak zerutik bigalduba naiz  
ni ušo mandatariya.

Beste gauza bat esan biar det  
¡o! bañan negargarriya,  
Ama euskera aspaldichotik  
daguala, bai, eriya;  
mintzatutzeko lotsatu gabe  
izkunez chit maitagarriya,  
au ezatera etorriya naiz  
gaur ušo mandatariya.

Amaika malko euskaldunari  
paper ekarriaziya,  
betiko pena eta tristura  
gañera emen utziya;  
zaitu ditzagun lege santuak  
Ama euskera garbia,  
gogoraturik zertara etorri  
zan ušo mandatariya.

*Euskal Erria*, 1911, LXV, 25. or.

### 3. Maitasun-bertsoak

#### ¡Ai Pilarcho!

Aingeru eder maitagarriya  
izar chit dizdizariya,  
nere kolkoko kutun polita  
eta nere gidariya;  
zure begiyak ematen ditet  
mundu onetan argiya,  
Pilar zu gabe illko nitzake  
esaten dizut egiya.

Ez naiz aspertzen zuri begira  
Pilar au sinistra zazu,  
nere biyotzak mundu onetan  
zuri bakarrik naidizu;  
kupitu zaitetz arren da arren  
bestela galduba nazu,  
eta zerutik maite laztana  
Jaunak sarituko zaitu.

#### Beti bizi naiz kesketan

Artu zairazu izan dezazun  
oroitz eder bat maitia,  
koroï apañ au jantzi zairazu  
arri fiñekin betia;  
zu zeralako mundu onetan  
nai dizun onen jabia,  
nere gidari osasuna ta  
pen danen aztutzallia.

Zu gabetandik ezdizut onik  
maite oraiñ dañokuan,  
lorikan eziñ egin det ere  
beti zaduzkat goguan;

eta nai nuke esaten dizut  
artu naitare zeruan,  
mundu onetan bizitutzia  
biyok alkerren orduan.

Larritasun au kendu zairazu  
arkitzen nazuta eri,  
biyotz neria ondo dakizu  
nai dizutala nik zuri;  
laister illbiar ¡aushen da pena!  
beste gaitzik gabe ori,  
kupitu zaitetz bada kupitu  
sufriezi gabe neri.

Ezdet egunik eta gabikan  
iya urte biyabetan,  
nere gisara iñoiz azten naiz  
bakardadian izketan;  
eta gañera ikusten zaitut  
askotane ametsetan,  
buru guztiya nastuturikan  
Beti bizi naiz kesketan.

#### Brijidacho-ri

Iñoiz ikusten bait[a] kalia  
laisterka ama negarrez,  
bere aurchua nonbait galduta  
jende guztiyari galdez;  
ni ere ala ibiltzen nazu  
bada egunaz ta gabez,  
bildur bildurrak maite biyotza  
joango zaitalako iges.

Ezpaldin badet beti bezela  
ikusten nere Brijida,

erotu nairik ibiltzen nazu  
erriyan jira ta bira;  
nere maitia non ote dagon  
alde danetan begira  
lenbailen bada irichi nairik  
bera dagoen tokira.

*Euskal Erria*, 1898, XXXIX,  
234. or.

### **Gero arte**

Penaz beterik triste nujua  
zure ondolik urruti,  
banua bañon... emen naiz laister  
iltzen ezbanazu aurki;  
zenbat sufritzen deran barrendik  
nik bezela, ¿zeñek daki?  
¡aushen da lana maite neria  
naijo nuke ezbaneki!

Ez da itzarik sortu mundura  
ez da sortuko iñondik,  
zenbaterañon maite zaitutan  
ondo esan nezakenik;  
naiz urrutiyen bizitu arren  
onuntz nondik edo andik  
etorrika naiz zure ondora  
eskian ere berenik.

### **Maitatzen diranak**

Lore ta ostu usai gozotan  
micheleta biren gisa,  
dama galayak aruntz onuntza  
Donostiyan gaur dabilta;

erri guztiyan jira ta bira  
musikara ta eliza,  
biyak alkarri esku emanik  
bada itza eta pitza.

Pobre, aberatz, chiki ta aundi  
mendiyan eta kalia,  
bizi gaitezen galai damaren  
gisara aldamenian;  
penak aztu ta beti algaraz  
gozamen aundiyenian,  
gaur edo bigar damutu gabe  
denbora joan ondorian.

*Baserritarra*, 1910-08-13, 153. zk.

### **¡Maitia!**

Zure begiyen dizdizak argi  
egiten dute chit alai,  
maite pozkiro argegiyori  
erakutzirikan danai;  
zoraturikan emen naukazu  
gaur zure edertasun nai,  
¡esan zairazu izar kutua  
neri zenbat dirazun nai!

Aurra galduta eztuta larri  
nabaitzen dira askotan,  
billatu eta laztandu nairik  
amak beren besubetan;  
ni ere ala gaut'egun nabill  
aspaldiko urtietan,  
alde daneta beti begira  
non ikusiko zaitutan.

Jaungoikoa onak lagun zaigula  
arren badezu komeni,  
biar bezela batetutzia  
emen len bailen zu ta ni;

ezdiralako mundu onetan  
nere iritziz beste bi,  
ainguru maite zoragarriya  
naikoyotenik alkarri.

*La Euskaria*, 14 zk., 1906-11-10

### **Martincho ta Marta**

Pasaitik Errenteri  
biyen bitartian,  
baserricho bat or da  
bada nonbaitian;  
sagasti ta udare  
askoren tartian,  
chakur zuri pollita  
daukana atian,  
zaunkaka geyenian  
lotuba katian,  
ezdiyona utzitzen  
iñori pakian,  
ezkutatu artian  
oso apartian.

Ez dirade izango  
munduan beste bi,  
bada maitiagorik  
batak bestiari;  
ezda besterik aitzen  
gaur jende danari,  
Martincho eta Marta  
elduta alkarri,  
beti bai or dabiltza  
salto ala korri,  
laztandubaz gaut'egun  
farrez ta kantari  
aingeruchoben gisa  
ezkontzeko larri.

Baserriya gaur askok  
famatzen dutena,  
eziñ bururatu zait  
beraren izena;  
dalako Donostiyan  
maite dizutena,  
orko alaba dezu  
damik ederrena,  
Martinchoren izarra  
zorutzen dubena,  
beregatikan bada  
illko litzakena,  
eta beti ondolik  
zaitzen dabillena.

Martincho eta Marta  
festa ta erromeri,  
zoro orla dabiltza  
bat utzibe ori;  
Oso ondo daudela  
gauzak badiruri,  
gañera maitasunez  
¿non dira beste bi?  
audiyotet aitutzen  
nik beste danari,  
beti eskian daudez  
bai Jaun aundiyari,  
alkargaituzu fedez  
gaur bada komeni.

*Baserritarra*, 1910-12-03, 161. zk.

### **¡Nere bigi bellcha!**

Gau guziyan naukazu  
¡lo gabe negarrez!  
ta zu beste batekin  
kantuan ta farrez;  
ez dirazu esaten  
ez bayetz da esetz,  
izar maite maitia  
¡nitzaz kupi zaitez!

Goizero joaten nazu  
aspalditik Brecha,  
zastutzen det ederki  
arrandeyen ercha;  
banitz bezela zutik  
dagoan arecha (1)  
esanaz: Atoz onuntz!  
¡Nere begi bellcha!

(1) Arbol.



## 4. Naturaren gozamina

### Eguzkiya

Eguzkiyaren printzak  
egun sentiyetan,  
dizdiz asko asaltzen  
ditu zelayetan;  
eta chori chikiyak  
arbol adarretan,  
kantarr jarri azten  
dizkitsu batetan.

Chori politen gisa  
diraden pishtiyak,  
danak alaitzen ditu  
beti Eguzkiyak;  
dizdizez jozten daki  
errollcho chikiyak,  
bai eta belar intzez  
gabian buztiyak.

¡Nola alaitzen gaitun  
bada Eguzkiyak,  
eta pozkidatutzen  
gañera eriyak!  
au gabetandik gaizki  
giñake guztiyak,  
aberats, biartzu ta  
chiki ta aundi yak.

Eguzkiyak pozturik  
goizetik kalera,  
bere gozameneta  
ateratzen gera;  
maitagarriya dezu  
onen jaikicera,  
¡zeñen chukun etortzen  
dan aurreko aldera!

Eguzki, eder bide  
zuzen gidariya,  
maiz ikustia onda  
onen arpegiya;  
delako mundutarren  
gauza zoragarriya,  
aspertu gabe beti  
begiragarriya.

¡¡Oh!! Eguzkiya bañon  
ederragorikan,  
ezda oraindik sortu  
beste gauzarikan;  
Illargi ta izarrak  
izanagatikan,  
abek utsak dituzu  
beintzat oraindikan.

*La Euskaria*, 14. zk, 1906-11-10

### Eguzkiya ta choriyak

Eguzkiyaren urresko printzak  
azaldutzen diranian  
chori chikiyak kantari asten  
dituzu arbol gañian;  
astindurikan ego politak  
posaz erotu nayian  
eztalirikan ozto tartian  
egontakuak gabian,  
diruritela ari dirala  
chaloka egiñ alian.

Zeñen ederki nabaitzen diran  
egur-zentiyen kantari,

ongi etorri eran nayian  
goizetik eguzkiyari,  
pipi ta pipi eshilaran gabe  
danak dituzula ari,  
.....  
lotatik batak bestiari,  
adarchubetau tente jarrita  
ongi dirala ageri.

### **Micheletak baratzen**

Udan danian ikuzten dira  
micheletak (1) baratzetan,  
nola dabilzan loretik lore  
pozaz danak joztaketan;  
ego politak erakutziyaz  
arratzalde ta goizetan,  
likort (2) gozoak bereganatzen  
zoramen aundiyyenetan;  
urrez jantziyak dirdiz egiñik  
eguzki berubenetan.

Izanagatik bai micheletak  
egalai shelebriak,  
laister topatzen dituzte bada  
krabeliñ ondo gordiak;  
chiki ta aundi danak dituzu  
usai goshuben zaliak,  
gogoz lanian zayatzen dira  
diruritela erliak;  
achaparrakin urratu nairik  
ozto banatzen loriak.

(1) Mariposas.

(2) Aroma.

### **Uda-berriya**

Uda-berriyan egun-sentiyan  
pozkiro dira tšoriyak,  
arbol gañetan antolaturik  
osto tartian kabiyak;  
eta kantari ipintzen ditu  
laiturik eguzkiyak,  
pipi ta pipi nabaitzen dira  
ari dirala guziyak.

Uda-berriyan apañ ikusten  
dira baratz ta soruak,  
likort gozoak zabaldurikan  
daudezela loretuak;  
elurra egin balu bezela  
toki danak zurituak,  
bai eta ere ostoz jantzirik  
gerezi, sagar, basuak.

Eguzkiyaren printzak zerutik  
alaitzen ditu tokiyak,  
jarririk bada dizdiz egiñaz  
non nai belartšo buztiyak;  
diruritela diamantiaz  
danak gañetik jantziyak,  
erakutziyaz goizetik arratz  
oso kolore biziya.

Mitšeletak loretik lorera  
egoan jira eta bira,  
uda-berriyan ordu danetan  
asko ikusitzen dira;  
etortzen dira ezdakit nondik  
baratz, zelai, ta mendira,  
urtero bada aurten bezela  
bizi gaituzun errira.

Eroll tšikiyak mur mur egiñaz  
datoz chit bide luzian,  
edo kantari goitikan beera  
išildu gabe danian;

uda-berriyan jartzen dituzu  
oyetik jaiki nayian,  
egualdi onak pozturik bada  
egon eziñik pakian.

Lurbironetan diran pištiyak  
uda-berriya nai dute,  
berak postutzen ditubelako  
danak beti orain arte;  
negu luzian nonbait gorderik  
bizitzen dituzu triste,  
orain bezela mendi gañian  
kantatutzen ez dizute.

*Baserritarra*, 1909-04-10, 118. zk.



## 5. Ama-haurrak

### ¡A nere aurchoa!

Egun batez echetik  
joantzait nonbaitera,  
ordutik au tristura  
¡ai! jarri zaitena;  
bere ondoren nabill  
batetik bestera,  
nere aurcho maitia  
oraiñ non ote da!

Billatuko alzaitut  
nonbait aingerua,  
nere errayetako  
maitecho gaišua;  
or dabill munduetan  
negarrez galdua,  
bere amari deika  
egiñaz ojua.

Negarra nabaitzen det  
eta inguruan,  
laister arkituko naiz  
beraren onduan;  
orra orren suertia  
gaztetik munduan,  
erozeiñ kupitzen da  
ustez orlakuan.

Ara, ikusten dizut  
dator neregana,  
malkoa dariyola  
bere amarengana;  
ni ere banijua  
oraiñ beregana,  
besuetan artzera  
maitecho laztana.

Zeruan arkitzen naiz  
besuan arturik,  
uste gabian orla  
aurra topaturik;  
ez daukat len bezela  
orainchen tristurik,  
echera banijua  
pozaz zoraturik.

*Euskal Erria*, 1895, XXXII, 494. or.

### Ama eta aurra (I)

Amaren ishpilluba  
eta eguzkiya,  
zeruko izar alai  
chit dizdizariya;  
aingeru polit pollit  
egan etorriya  
nere penak kentzalle  
aur zoragarriya;  
malkoakin buztirik  
daukazu begiya  
ishildu zaitez bada  
arzazu titiya,  
eramanik kolkora  
eskucho chikiya.

Uda berriyan ezda  
jayotzen lorarik  
zuri edertasunez  
emango dizunik;  
eta ezda izango  
uste det besterik  
bere ama ainbeste  
maitatzen dubenik

danak ezaten dute  
bada irriturik  
¡Jauna! ori da aurra  
bai laztandunairik,  
guziyak naidutela  
artu nai bezotik.

Ama ikusi gabe  
ez dezu onikan,  
aurchoa beti nabil  
zure ondotikan;  
illko ziñake bada  
ni gabetandikan  
ezdez gaur mundu ontan  
maitiagorikan  
jango zinduzket bada  
bizi bizirikan;  
laizter jarri biarra  
nazu burutikan  
mushuka eldurikan  
lepe lepotikan.

Micheleta politik  
ta chori chikiyak  
usho pintarratubak  
chit ikuzgarriyak  
pozaz emen dabilza  
gaut egun guziyak  
choraturikan danak  
zure arpegiyak  
Jaungoikoak zerutik  
onuntz bigaliyak;  
esanaz ama ta aurra  
oso maitatiyak,  
penetan bizi gabe  
jostatzeke biyak.

## **Ama eta aurra (II)**

Goizetik arratzarte  
negarrez kalian,  
emakume zarcho bat  
lengo egunian;  
bere aurcho maitia  
topatu nayian,  
asnaz estubarekin  
ito biarrian,  
bat azaldu orduko  
aurreko aldian,  
etzuben beste itzik  
bada mingañian,  
¿ikusi aldezute  
neshka bat bidian?

Iñondikan etzuben  
neshkaren berririk,  
naiz galdetu danari  
non zan jakin nairik;  
bat errukitzerañon  
ala ikusirik,  
bañan alako batez  
Jauna kupiturik,  
an azaldu zan aurra  
elizen atetik,  
eta ama gajuak  
besuan arturik,  
¡Ura biyaren poza  
alkar topaturik!

Negarraren ondoren  
poza zan urrena,  
iya lertutzerañon  
biyaren barrena:  
mushuka jan nayian  
¡ura zoramena!  
nola aurchubarena  
eta amarena,  
nere aingeruchua  
itzarik charrena,

izar, zeru, laztana  
neshkik ederrena,  
alkartu ezbaziran  
izango zan pena.

Zaitu guraso onak  
aurchuak echian,  
gero ibilli gabe  
negarrez kalian;  
oso galdu dalako  
bildurrak aidian,  
naiz sufritu barrendik  
azi bitartian,  
berriz gertaliteke  
au uste gabian,  
bat ernai ezbadago  
bai biardanian,  
orra guziyok jarri  
jakiñen gañian.

*Baserritarra, 1909-10-09, 131. zk.*

### **Ama ordezkoa**

Zeren gazterik gelditu zeran  
doakabea bakarrik,  
aita ta ama bere ondora  
Jaungoikoak eramarik;  
triste gajoa ishildu zaitez  
etzatzull egiñ negarrik,  
amaren orde emen naukazu  
zutzaz arrunt kupiturik.

Ume zurtz kutun eder ederra  
izar berdiñik gabia,  
aingeru loztan zoragarriya  
amaren poztukallia:  
atoz besora tori mushu bat.  
usai gozoko loria,  
jeziñ egon naiz jango zinduzket  
maite ishildu zaitia!

Ordu illuna eta samiña  
zuretzat gaur izan arren,  
alaitu zaitez ez egiñ negar  
ez egon orla penatzen;  
aita ta ama iltziran bañon...,  
etzaudez bakarrik emen,  
¡aushenda lana begira nazu  
ez nazu ondo ezautzen!

Ezker aundiyak beti bezela  
emanik gure Jaunari,  
maite biyotza biziko gera  
gaurtik aurrera kantari;  
lo egiñ zazu zoragarriya  
sufriazi gabe neri,  
bide zuzenez etorri eta  
jabetu zaizun amari.

Au zoramena sortu zaitana  
¡Jesus nere Jaungoikoa!  
au da aurpegi zuri-gorriya  
eta ille urrezkua;  
abehek dira begi alayak  
aushen da au eskuchua,  
¿nerek otedu mundu onetan  
aur bat au beselakua?

Zuretzat dira nere asnazak  
zuretzat nere kolkua,  
zuretzat gauza guziyak bada  
zeruko aingeruchua;  
beti saitutzen egongo nazu  
maitecho biyotzekua,  
ni nai zelako mundu onetan  
zure Ama ordezkoa.

### **Amaren naitasuna**

Ez da ez egunikan  
joaten eznaizenik,  
aur chiki baten gana  
tristuraz beterik;  
beti goguan daukat  
aztu gabentandik,  
gaur eziñ ikusiyak  
nauka zoraturik.

Aingeru zoragarri  
¡ai! nere aurchoa,  
betiko orchen zaudez  
lur pian sartua;  
atoz amarengana  
lenbailen gašua  
¡zer pozikan emango  
nizuken mušua!

Iñoiz egiten ziran  
emen milagruak,  
nonbait ala nairikan  
gure Jaungoikuak;  
ori chinisturikan  
gaudez mundukuak  
oraiñ artian bada  
gizon fedetsuak.

Milagrocho bat egiñ  
biarda lenbailen,  
aurchoa eta ama  
elkarrekin dauden,  
eziñ bizi liteke  
onela au emen:  
orra gaur erakutsi  
naitasuna zer den.

*Euskal Erria*, 1896, XXXIV, 297.  
or.

### **¡Aur zoragarriya!**

Parerikan ezduben  
aingeru argiya  
munduko tristiaren  
iñoiz pozgarriya;  
zure kontuban nago  
aspaldi jarriya,  
beti maiteko zaitut  
¡aur zoragarriya!

Nola uda berriyan  
pozten dan choriya,  
arbol osto berdetan  
egiñaz kabiya;  
ni ere ala nago  
aspaldi jarriya,  
beti maiteko zaitut  
¡aur zoragarriya!

Gabaz azaltzen baita  
iñoiz illargiya,  
egunaz ere berriz  
ala eguzkiya;  
askoz argiyago da  
zure arpegiya,  
beti maiteko zaitut  
¡aur zoragarriya!

Zure zalantzan nago  
gau t'egun jarriya,  
bi jolas egiñ nairik  
nere pozgarriya;  
irten zaite leyora  
munduko argiya,  
beti maiteko zaitut  
¡aur zoragarriya!

*Euskal Erria*, 1896, XXXIV, 410



### ¡Ill-arteko pena!

¡O! zerura ba zuaz  
ondotik laztana  
zure ama beñere  
aztuko ezdana;  
amaika mushu gosho  
pozkiro emana  
egan ikusten zaitut  
¡auchenda au lana!  
Jauna eramanazu  
aurchuarengana.

Begira egongo naiz  
zerura emendik  
esanaz atoz onuntz  
bezubak zabalik;  
malkochoak botiaz  
gaut egun begitik  
negar ta negar penaz  
zutzaz oroiturik  
ezin bizi naiz ela  
oso gashoturik.

### ¡Nere zoramena!

Lore eder ederra  
goizeko izarra,  
mundu onetan beti  
nerekin zan aurra;  
amaren biyotzeko  
aingeru bakarra,  
¡illtzan tristia eta  
auda au negarra!

Jaunak eraman zaitu  
aur maitagarriya,  
zerutikan berotzen  
zauden eguzkiya;

atoz nere kolkora  
artzera titiya,  
negarrez barrena  
amak laztandu dezan  
zure arpegiya.

Kutun begi alaya  
¡Jesús au da pena!  
zeruan egon arren  
aurrik maitiena;  
iya lertuban daukat  
atoz aingeruchua,  
aldezu lenena.

Beti gora begira  
aspertu eziñik,  
Jaunari erregutzen  
belaunikaturik;  
ez det mundu onetan  
nik egun bat onik,  
¡ai orchen banegoke  
emendikan joanik!

*Baserritarra, 1910-02-06, 141. zk.*

### Zeruko izarra

Begi beltz eder eder,  
kolore gorriya,  
eguskiya ematen  
duben arpeguiya,  
zudur pollit polita  
ta ao chikiya,  
aingeru zerutikan  
onutz etorriya,  
nere lastan maitia  
aur zoragarriya,  
zuri begira beti  
ichutu naiz iya.  
uste det ni naizela

munduan bakarra  
egiten dirazuna  
ikutsian farra;  
eziñ esan nizake  
zeradela charra,  
baizikan leyalata  
danian azkarra,  
penak kentzeko badet  
gaur zure biarra,  
atoz etzubazela  
zeruko izarra.

## 6. Gizartearen gorabeherak eta gertakari aipagarriak

### **Ama, ¡agur!**

-Etorriko naiz Jaungoiko onak  
Baldiñ lagundutzen badit,  
Beste geyago joaten dirade  
Bere amaren ondotik;  
Alaitu bedi ¡ez egiñ negar!  
Nere soldaduzkagatik,  
Beti goguan irukiko det  
Urruti emanagatik.

-Amaika negar amak egiten  
Degu joandan aspaldiyan,  
Orlako gauzik etzan lenago  
Semia Euskal-erriyan;  
Askoz obeto bizitzen giñan  
Bakoitzak geren tokiyan,  
¡Teri laztan bat askenekuba  
Izango da ta agiyan!

### **Arroketan**

Lapak biltzera Uliya pera  
osteguiyan joanikan,  
ezdakit nola etorriziran  
iru edo lau andikan;  
eztu ta larri ibildu arren  
.....  
orremeztian pasa danian  
egon litezke pozikan.

Bati zapata eroridikan  
bada arroca tartera,  
arren ondoren zartu zan bañan  
gero ezintzan atera;

portu natu zan bidezuzenez  
joatia mavia bera,  
oso kontentu egon liteke  
bildu danian echera.

Uzkeri batengatikan iya  
ondoren zetozen penok,  
jaso nairikan toki artatik  
gauz baliyo etzbenak;  
orlakubetan far egiñ arren  
miñ atzen dizu barrenak,  
lapak bitzera joan biardute  
ango berri dakitenak.

Ondo joan dana ondo kontatu  
bañan... iruki goguan,  
sartu bañon len zerbaiten ezke  
berriz arroca suluan;  
ezdu baliyo emen negarrak  
denbora pasatakuan,  
eta satua dantza zazute  
lapak jateko orduan.

### **¡Au neska!**

Goizeko bostetako  
tratubakin plaza;  
saskiyan arturikan  
iru buru aza;  
ayek saldu artian  
zazpi ordu pasa,  
bizi modu ederra  
daraman Tomasa.

Lishurako zapiyak  
jotzen iturriyan,  
aritutzen naiz neska  
errabi aundiyan;  
señora beselashen  
naiden baserriyan,  
lanarik egiñ gabe  
pachara guziyan.

Illia apaindutzen  
biaitun bi ordu,  
ezdakin ez edorrek  
noletan orraztu;  
batian azkatutzen  
bestietan lotu,  
ishpilluben aurrian  
ezinaiz aspertu.

Lanian zayatu ta  
bizitzen gaitunak,  
oraiñ artian gaitun  
oso ezagunak;  
baseritik neskachak  
ille tortondunak  
ezdizkin ekarritzen  
iñondik gauz onak.

Ez den beste nezka bat  
gaur auso guziyan  
orrela apañdutzen  
danik baserriyan;  
or ikusten dizkiñat  
asko oñ gorriyan,  
eta gobara jotzen  
gogoz iturriyan.

Ondo ikusi nairik  
gaur beren aurchuak,  
gaudez beti kontuban  
emen gurasuak;  
baseritik kalera  
datorren lujauk,

zer diran jakingodu  
¡gure Jaungoikuak!

*Baserritarra, 1910-12-31, 163. zk.*

### **Baserritarra (I)**

Ama euskera eta fueruak  
maite ditun gizon zarra  
nekazaritzan oraindik ere  
gazte bat bezin azkarra;  
euskal festetan urtero onuntz  
datorren baserritarra,  
au da geyenak ezautzen degun  
Mendiburuko maiztarra.

Uda ta negu egun-sentiyan  
joaten dezu zelayera,  
naiz dala laya ta achurrakin  
soro lanak egitera;  
ezdu nekiak ikaratutzen  
zarra dalarikan bera,  
chit gogo aundiz zayatutzen da  
begiraturik echera.

Ebiya eta chingorra gogor  
naiz ere ariatikan,  
eta mendiyak egonagatik  
elurrez eztairik,  
ez du utziko igande goizik  
añ guchigo jayarikan  
egualdi charrak ikaratuta  
mezik entzun gaberikan.

Langillia ta sayatzen da  
eta gañera zintzua,  
biyotz biguña eskaliakin  
baserritar ondradua,  
elizako da gizon umilla  
gagtetandik fedetsua,

lur maniatzen oraindik ere  
beste askoren maisua.

*Baserritarra*, 1909-03-13, 116. zk.

### **Baserritarra (II)**

Elizaburuko baserriyan  
gaurre bizi dan aitona,  
eunda zazpi urte berekin  
bizkarrian dizkitzuna;  
Donostiyara oraindik ere  
tšit maiz etortzen dezuna  
zarra da bañon nai dubenian  
gazte bat beziñ itztuna,  
lege santuak eta euskera  
beti maitatzen dituna,  
Euskal erriyan erdaldunikan  
ikusi nai ezdizuna,  
zayatutare zall da topatzen  
onelako euskalduna.

Eskapulayo bedinkatubak  
lepotikan zintzilikan,  
beti berekin ibiltzen ditu  
bai kendu gabetandikan;  
eta askotan buru utzikan  
belauniko jarririkan,  
ziñatu eta bere ondoren  
aberi muñ emanikan,  
biyotzetikan eskatzen dizu  
gora begiraturikan,  
zar izan arren zayatu nai det  
zelayian oraindikan,  
eta lagundu zairazu bada  
Jesús ona zerutikan.

*Baserritarra*, 1909-03-27, 117. zk.

### **Baserritarra (III)**

Egun-sentiyan jeikiko dezu  
goizero baserritarra,  
lur maniatzen zayatutzera  
nola gaztia ta zarra;  
achurrarekin an neurtzendu  
berak dadukan indarra,  
maiz iserdiya erakutziyaz  
eta aotik afarra.

Ama euskera maite dizute  
bait'ere lege santuak,  
seme leyalak abechek ditu  
beti gure Jaungoikuak;  
gora begira chit maiz egiten  
dituzte ta errezuak,  
bere ondora eraman ditzan  
nekazari fedetsuak.

Igande goizik ezdu utziko  
ain guchi jai-egunikan,  
ezda beñere mezarik gabe  
gelditu iñondikan;  
mendiyan beera pozaz jaizten da  
bere baserrichotikan,  
illobachua mutill koshkorra  
dubelarik eskutikan.

Bedeinka beti baserritarra  
dalako maitagarriya,  
langillia ta gizon ontzua  
elizarekin jarriya;  
biyotz biguna ezin geyago  
tristien alaigarriya,  
iserdiyekin bizi dezuna  
azturikan pikardiya.

*Baserritarra*, 1910-09-24, 156. zk.

### ¡Bedinka baserritarra!

Seme alabak aitak arturik  
joaten dira zelayera,  
egun-sentiyen uda ta negu  
lurrak maniatutzera;  
eta illuntziakin batian  
echeratu bai ostera,  
achur da layak zintzo bildurik  
fameliyan alkartzera.

Danak bildurik mayen onduban  
zerbait artzeko asmuan,  
errezatutzen azten dituzu  
ziñaturikan orduan;  
usariyua zaiturik bizi  
dira oraindañokuan,  
ezagaturik Jaunak saritzen  
dakizkilako munduan.

Antziñetako lege Santu au  
arrats chit ona izanik,  
baserritarrak maitatzen dute  
danak bigotzen erditik;  
gabaz bezela ala goizian  
jaiki orduko oyetik,  
Aita guria esan bañan len  
ezdira joango echetik.

Euskal-erriko baserritarrak  
Jaungoikuben fedetsuak,  
oraindik ere asko baditu  
emen bere aldekuak;  
chit maiz egiten dakizkitenak  
biyotzetik errezuak,  
eliza korrak ta langilliak  
seme onen gurasuak.

Jaungoikoari erregutzia  
beti izanik aurrena,  
gauza oberik ezda munduan  
ezercho eta urrena;

baserritarra dezu danetan  
asko egiten dubena,  
gora begira umildurikan  
eman nayian barrena.

Bide zuzenez bizitutzeko  
naiz gaztia eta zarra,  
bere lanetik erakutziyaz  
iserdiya ta afarra;  
alde batera oso utzirik  
emengo izketa charra,  
pake gozoan aserre gabe  
¡bedinka baserritarra!

*Baserritarra, 1910-11-05, 159. zk.*

### Egiñ lana

Lanak alaitzen gaitu langille  
geranak mundu onetan,  
famiyakin bizi azitzen  
¡o! gañera gloriyetan;  
aztu azitzen ditu belarik  
malko asko begiyetan,  
lanikan ezak negarra dakar  
beti alderdi danetan.

Lanetik datoz gozamen danak  
eta alkar maitatziak,  
bata bestiai lagundurikan  
gauz onak erakustiak;  
emakume ta gisasemiak  
bide onez bizitziak,  
bai eta ere ibilli charrak  
aurrerako aztutziak.

Gauza guztiak lanetik datoz  
eskerrak bada lanari,  
oraiñ artian zayatu eta  
ortik bizi geranari;

bestela oso gaizki giñake  
ondo badakigu ori,  
gerta liteke lanikan ezak  
kentzen aztia alkarri.

Goyan zero bat degun bezela  
beste bat degu beean,  
eta zero au dezu gureztat  
zar da gaztiak lanian;  
oroiturikan aurcho gashuak  
noletan dauden echian,  
ao zabalik ¡aita! ojuka  
biarrik audiyenian.

Lana da gure eguzkiya ta  
izar eta illargiya,  
biartzubaren zero zabala  
gauza onen gidariya;  
pakia eta alaita poza  
eguneroko ogiya,  
¡o! lana dezu bai itz batian  
chit oso miragarriya.

Jaungoikoak bedinka dezala  
lana orain eta beti,  
mundu onetan bizi gaite zen  
alkar arturikan ongi;  
kopeta lazai erakutziyaz  
kalian bada danari,  
burua gora jatorik beti  
ta barjakindea (1) garbi.

(1) Conciencia.

### **Ezer ezta festa**

Konchan aspaldichotik  
badaukagu festa,  
ontzi bat eman nairik  
nola bait ureta;

eta an biltzen gera  
degunian beta,  
ikustera alferrik  
aterako ezta.

Uda gañian da ta  
balegoke bertan;  
kanpotar aberatz bat  
gustatzen ote dan;  
bestela biarko da  
atera pusketan,  
ezdute jarriko ta  
osorik uretan.

Buru nekatze asko  
gaur dabil danian,  
luze daguelako  
lotan ondarran,  
esanaz aisha jarri  
liteke urian,  
ta nik ezdet sinisten  
ikusi artian.

Nai badute eraman  
ortikan urera  
biar dizkate orri  
gauz sako atera;  
barrengo burni danak  
naiz jarri osterera,  
orrela gaur zayatu  
litezke aurrera.

Eta gañera nago  
chit arriturikan,  
gizonak ekartzia  
onuntz kanpotikan;  
emen izanik asko  
onak oraindikan,  
ori ateratzeko  
dagon tokitikan.

Orain zaya zaitezte  
gizon jakintsuak,

ori ureratzera  
buruz indartzuak;  
lenagore lan onten  
ibillitakuak,  
eta joko ditugu  
orduan chaluak.

### **Kontu...**

Igande ta jayetan  
dantzara or ua,  
utzirikan bakarrik  
amacho gashua;  
urtez ondo jantzia  
gañera miñtzua,  
errena batetikan  
bestetik ichua.

Eta gabian beti  
berandu echera,  
egiñik bitartian  
milla gora bera;  
neska gaztiarentzat  
ez den ibillera,  
obeden egun argiz  
etorri aurrera.

Ama zaitutzen egon  
obeden echian,  
damutu gabe gero  
berandu danian;  
ez diñ ondo ematen  
gaztiak kalian,  
illunpetan chu chu chu  
gaberdi aldian.

Nik ezautzen dizkiñat  
bai neska gaztiak  
esateko oraindik  
diranak umiak;

zarrak diruritela  
negarrez tristiak,  
eta bada zerdiyon  
atzetik jendiak.

Zarren esanak beti  
arturik goguan,  
bizikoaiz millaldiz  
obeto munduan;  
lagun charrak utzi ta  
amaren onduan,  
Jaungoikuben bildurraz  
abilen lekuan.

Nire gazte izana  
nan bada Kataliñ,  
eta gaurre bizinan  
zarren esanakin;  
etziraten alabak  
ezer charrik egiñ,  
pakian orain arte  
beti alkarrekin.

*Baserritarra, 1911-02-11, 166. zk.*

### **Konchan (I)**

Etzanda lotan ontzi koskor bat  
luze dago ondarran,  
ezdakit nola ezduten jartzen  
biar bezela urian;  
batek audala bestiak ori  
ari gera jardunian,  
jakintzu asko gaituzu iñoiz  
bañan... ez biar danian.

Erriz bestetik Donostiya-ra  
zabaldur da datozela,  
ontzi koskor au orduba data  
jartzea biar bezela;



nik uste nuen emen zaudenak  
ori egingo zutela,  
bañan... diruri datozten abek  
obetubo dakitela.

Izan dadilla nai dubena ta  
zayatu bada len bailen,  
oraiñ bezela aurrera ere  
farrik egiñ ezdezaten;  
ondar gañian urera gabe  
gaizki dizuta ematen,  
orrela beti iruki gabe  
jarriko aldute aurtan.

## **Konchan (II)**

-Nere lagun Inashi  
¡orishen lujua!  
markesaren modura  
ago apaindua;  
mantilla blondaskua  
kaden urrezkua,  
sombrilla sedaskua  
moda berrikua,  
sobre-todo ederra  
¡bañan nolakua!  
kolore bitakua  
pañu [n]ñekua,  
saya bajera berriz  
ondo bordatua,  
polbuak arpegiyan  
ta perfumatua,  
¡orla topatu biar  
neska nobiyua!

-Nobiyuak Karlota  
pareska atzetik,  
azaldu ordurako  
kalera echetik;

danak biar nautela  
¡erotu biarrik!  
kaballero jendia  
etzion chancharik,  
musikan pasiatzen  
señora jantzirik,  
teatrora gabian  
balidinba bailerik,  
chanpañ eta pasteles  
nion asperturik,  
ezkonduko nan laister  
duda gabetandik,  
kapitan barkukua  
senartzat arturik,  
goyarriyan ez baita  
orlako gizonik.

-Ez dirade izango  
urte bi iñondik,  
etorri ziradela  
abek goyerritik;  
erdera ez dakite  
esateko tutik,  
beren buruak aundi  
erakutzi nairik,  
ezdute miñtzatu nai  
iñola euskerik,  
gañera aitorture  
bada baserririk,  
¡O! koitadu tristiak  
zaudezte oraindik,  
jaunchuak izan arren  
gaut' egun ondolik,  
zubek azkenerako  
nik ondocho dakit,  
chandarmiak emango  
zaituzte emendik.

*Baserritarra, 1910-01-29, 139. zk.*

## Morane egaan

Zeñen ederki ushuben gisa  
Egaan gora eta beera,  
Gaztelutikan Uliya-ra ta  
Berak naiduben aldera;  
Bide luzian mantzo ta azkar  
Noiz nai jachirik lurrera,  
Ezkutatubaz urrutian da  
Azaldurikan ostera.

Gizona asko argiratu da  
Urte guchi barrunbian,  
Zeñek chiñistu ikusi gabe  
Orla ibiltzen aidian;  
Odoi tartian nai dubenian  
Andik lurrera kolpian  
Diruriyela erori eta  
Ilbiardubela bian.

Beste gauz asko azaldu biar  
Dira mundura oraindik,  
Ikusgarriyak gizon azkarrai  
Dada burura jayorik;  
Aurrera ere zayatu eta  
Gaut'egun loa galdurik,  
Orain bezela egongo dira  
Lan ayekin arriturik.

Gure aitonak baldin lurpetik  
Gaur azalduko balira,  
Eta ikusi gizonak orla  
Egaan jira eta bira;  
Laister esango luteke danak  
Jarri orduko begira,  
Ziñaturikan dudarik gabe  
Oyek diabruak dira.

*Baserritarra*, 1910-10-08, 157. zk.

## Morroï leyala

Tolosatikan esker  
ez aiñ apartian,  
baserri bat ikusten  
da mendi gañian;  
gaztañ ta piku arbol  
askoren tartian,  
zelai ta sagastiyak  
onak bitartian,  
ardi eta ganadu  
ederrak larrian,  
aruntza ta onuntza  
janaz belardian,  
lore ta milla gauza  
soro zabalían,  
micheletak baratzan  
pozaz jolasian  
eta mutill bikaña  
zaitutzen danian,  
chakur chiki batekin  
bai aldamenian.

Goizetik eliza  
jai eta astegun,  
apenaz oraiñ arte  
meza bat uztendun;  
eta nekazaritzan  
oso gogoz jardun,  
nagusiya ondotik  
arturikan lagun,  
ez det uste gañera  
itzik egitendun,  
ainda mutill ishilla  
nola gabazt'egun  
leyalagorik iñon  
danik ezdet entzun,  
baserriyare dauka  
danian chit chukun,  
zikintzen dalarikan  
ezdala ezagun,  
batek eman lezake  
lurren gañian muñ.

Pello bai gelditu zan  
bakar bakarrikan,  
gurasubak ill eta  
chit gaztetandikan;  
morrontzan bizi dezu  
bada geroztikan,  
oso estimatua  
nausiyetatikan,  
berena beselashen  
dizutelarikan,  
ogei urte badira  
orda golarikan,  
ezdu iñora joan nai  
dagon tokitikan,  
naiz soldata geyago  
emanagatikan,  
artuko lizuteke  
askok gaur pozikan,  
onen leyalatasuna  
ezaguturikan.

*Baserritarra, 1910-12-17, 162. zk.*

### **Neska barrabasa**

Ogeita bi urteko  
neska chit iztuna,  
sasoi gogorrekua  
indar asko duna;  
baserriko alaba  
beres euskalduna  
emen ingurukua  
eta esaguna,  
au da mutill geyenak  
austen dizkitzuna.

Tokan eta pelotan  
gañera boletan  
palankan ta laisterka  
buru da danetan;

ezdezu besterikan  
pishu jasoketan,  
nola aserratzian  
bada erriyetan,  
eta guchik ematen  
diyo bertsubetan.

Neska barrabasa ta  
oso biyurriya,  
burrukarako ere  
ez da bildurtiya;  
ez da ez denbora asko  
dala ibilliya,  
nekazari batekin  
Joshepa Mariya,  
mutur joka azita  
bai illtzuben iya.

Gaur edo bigar bada  
ezkontzen danian,  
eta taranta charran  
jartzen dezunian;  
ez nuke nai nik egon  
ez aldamenian,  
zeren laister nitzaken  
leyotik kalia,  
berak agindu naiko  
dulako echian.

*Baserritarra, 1910-06-18, 149. zk.*

### **Neska zar baten malkuak**

Mari Iñashi mazti-pekua  
josten ibiltzen dezuna,  
gaztetandikan oraiñ artian  
emen dama ezaguna;  
sasoi batian oso ederra  
berdiñikan etzuenan,  
neska zartuta bizi biarra  
onechek gaur dauka pena.

Neska zartuta penetan dago  
negarta negar jarririk,  
erozeiñ gazte bezin apaña  
josten dezula oraindik;  
nobiyo billa Mari Iñashi  
sayatutzenda gogotik,  
kalerik kale beti badabil  
norbait engañatu nairik.

Lagun guztiyak eskonduzaizka  
eta bera oraindik ez,  
gogoratzian beti azten da  
Mari Iñashi negarrez;  
gazte zanian naiko aukera  
neska zartuta baterez,  
denbora jonda alperrik dabil  
ikusitzen dizutenez.

Mari Iñashik lengo batian  
ala bere lagunari,  
nere meriyoz bada Joshepa  
peatu zaian ederki;  
naiko aukera baniñan eta  
itz-eman ez nik iñori,  
orain neska zar emen nabillen  
jende danen parragarri.

Lenbizikua niñan argiña  
bigarrena errerua,  
irugarrena zillargillia  
laugarrena musikua;  
ta bosgarrena arrantzalia,  
seigarrena barberua,  
gazte denboran bazan atzetik  
neri norek segitua.

Nola igandez ala jayan  
entzuten ditu meza bi,  
oraindik ere gustatzen zayo  
begiratzia berari;  
andik plazara berriz joango da  
naiz an ezer ez erosi,  
erakustera zeñen apaña  
dabillen jende danari.

Nonda musica ara dijua  
beti dabil erromeriz,  
eta gañeko festetan ere  
ezda esanikan berriz;  
naiz urtechuak izanagatik  
igual jasten dezu gorriz,  
lenagotikan ez ezkondua  
damutu zayo mill-aldiz.

Bere buruaz ernegaturik  
ikusten dizut galdua,  
sayatu arren eziñ billatu  
duelarik nobiyua;  
alper-alperrik dabil Iñashi  
norek naikodu gajua,  
orrenchen pena mundu onetan  
neska zar bai gelditua.

Triste gajuak illia dauka  
elurra beziñ zuriya,  
begiyak berriz azki gorriyak  
oso shimur arpegiya;  
ortzikan iñon ezdu ageri  
beste nonbait aragiya,  
apostu bada iru arrua  
ezdala orain guztiya.

Eziñ luzaro bizi liteke  
pena dauka ta gashuak,  
negarrez iñoiz botatzen ditu  
ginga añako malkuak;  
beti goguan bada daukaizki  
len izantako majuak,  
neska zartu ta askenerako  
orra orren ishtilluak.

Berriz milagrozt gaztetzen bada  
eta badu osasunik,  
ezdizut uste leno bezela  
luzara egongo danik;  
arrantzalia, naiz musikua  
joaten bazayo ondotik,  
bayetz aguro esango diyo  
lenguak gogoraturik.

Dama gaztiak orra kontuan  
bada aurretikan jarri,  
badakizute urrengorako  
danak neska zarren berri;  
denbora joan da eztu baliyo  
ibiltzia parragarri,  
gauza guztiyak bere sasoyan  
beti dirade komeni.

Bertso-papera. San Sebastian. Imp.  
De Pozo; Fuenterrabia, 14

Gu berriz nola geran  
danetan jarriyak,  
laister eingo ditugu  
jaun oyen aldiyak;  
aurrian arturikan  
beltz eta zuriyak,  
badaki gaur zer egiñ  
ongi Españiyak.

*Euskal Erria*, 1896, XXXIV,  
250. or.

### **Orañ da ordua**

Ontzi eder bat orañ  
guk emen egiñik  
españolak generala  
erakutsi nairik,  
beñere ez da izan  
aukera oberik,  
ez det uste anayak  
gauz au ukatzerik.

Baldiñ gertatzen bada  
gerra etortzia,  
lendegunaz gañera  
ala ere bestia,  
aurretikan chit on da  
ernai egotia  
eta ontzi eder bat  
azkar egitia.

Beltzak eta zuriyak  
oso arrotuak,  
Abana-ko semiak  
nola bestekuak  
Nobayork-kuak ere  
daude erotuak,  
españolaren kontra  
danak berotuak.

### **Sagarchoko morroya**

Amabi urte eche batian  
morrontzan damaizkiyena,  
oraindik ere chit sasoikua  
ta lanian dakiyena;  
nola laya ta achurrarekin  
danetarako onena,  
lur maniatzen gañ gañekua  
berdiñikan ezdubena,  
auda mutill bat auso gustiyan  
chit asko maite dutena,  
itz bat charrikan iñon aurrian  
ez egiten eztubena,  
aserrerikan lagun artian  
zerdanik ezdakiyena,  
baserri-eche morrontz tokiyan  
dana gidatzen dubena.

Ichu ichuan artu lezake  
nor dan galde gabetandik,  
lur maniatzen ta ganaduak  
zall da topatzen oberik;  
oituba dago guchi bezela  
bada oso chikitandik,  
eta gañera añ da zintzua  
ezdu erretiro charrik,

jaita astegun ezda ikusten  
trabenetan au sarturik,  
ezda orditzen asko bezela  
ezdu maite edaririk,  
egun-sentiko zelayan da  
ezdizu deitu biarrik,  
goizetik arrats an adiko da  
iserdiya azaldurik.

Gaur edo bigar eskontzen bada  
eta baserriyan jarri,  
zaituko diyo aldamenetik  
onek artzen dubenari;  
jardungo diyo goizetik arrats  
kupirik gabe lanari,  
esan bezela oituba dago  
badaki danaren berri,  
bat baldiñ bada mundu onetan  
eman azteko lurrari,  
au da onena orain artian  
esaten diyot danari,  
egingo dizu bai echerako  
biar aimezte janari,  
pozaz emanaz biyotzetikan  
aurcho ta emaztiari.

*Baserritarra*, 1909-06-19, 123. zk.

## 7. Istorioak

### Artzai on baten kantak

#### AZALKAYA

Ama euskera maitia  
mendiyan dago gordia.

Artaldia zaitutzen  
umore onian,  
kantari goizetikan  
nago itzalian;  
Pinto daukatelarik  
nik aldamenian,  
lagun dabilkitana  
amasei urtian;  
chakur oso maitia  
gaur auso danian,  
erosi nai dutena  
iru ontzurrian;  
usten ez diratela  
iñondik pakian,  
bañan ez det zalduko  
bizi dan artian.

Bordan eta larrian,  
Pinto, da gidari,  
ez diyo bakarrikan  
uzten ardiyari:  
zaitutzen daki ondo  
bere billdochari,  
artalde ederrian  
jayo diranari;  
osta osta zutikan  
dabiltzan ayeri,  
batzubetan alcha ta  
bestian erori;  
beti ondotik bada  
amen titiyari,

chit lan asko emanik  
iñoiz abek neri.

Elizako eskillen  
otza aditzian  
mezetara jeiste naiz  
igande goizian  
Pinto usten detala  
ardiyen aurrian  
nere aruntz onuntza  
egin bitartian  
maldak igarorikan  
laisterka bidian  
artaldia berriro  
ikusi nayian  
len bezelashen bada  
daudezen larrian  
eta bildoch maitiak  
lotan itzalian.

Ez det ardi bat galdu  
iñon oraindikan,  
edo Pinto nerekin  
dan ezkeroztikan,  
ez da beste chakurrik  
orren zintzorikan,  
artzai guziyak dauzkat  
gaur arriturikan;  
esan detan bezela  
erosi nairikan,  
erotutzen nautela  
bañan alperrikan;  
ilko nitzake laizter  
bai penaturikan,  
maite dizutelako  
chit chikitandikan.

Ez da azeriyarik  
ez ere otsorik,  
artaldien ondora  
etorriko danik;  
Pinto beti bezela  
nerekin dalarik,  
laizter bigaltzen ditu  
bada orlakorik;  
izatz da belarriyak  
zutikan jarriarik,  
oituba dagolako  
oso chikitandik;  
eta ez dubelako  
batere bildurrik,  
mendiyan bizi diran  
pishtiyaren gatik.

Inguruko mendiyen  
geyenaren berri,  
Pinto chakur azkarrak  
badaki bai ori,  
karobi zulo illun,  
baso aundiari,  
nola arkaitz zorrotz da  
ibai zabalari,  
maiz egiña dalako  
joan eta etorri;  
ardirik galdu gabe  
berai ta besteri,  
etzan echeratutzen  
utzirikan iñori;  
laguntzen dabill beti  
artzai guziari.

Nola chori chikiyak  
bai uda-berriyan,  
pozaz egoten diran  
amakin kabiyan;  
ni ere orla bizi  
nazu baserriyan,  
ardi ta Pinto-rekin  
joan dan aspaldiyan;

oso pake santuban  
nabilen tokiyan,  
kantari geyenian  
gozamen aundiyan;  
zeruan bezelashen  
gautegun mendiyen,  
eguzkiyen igesi  
arechen azpiyan.

Jaunak eramanikan  
guraso maitiak,  
beti goguan dauzkat  
geroztik urtiak;  
egiten ditutala  
erreso luziak,  
elizan ikusirik  
dauden gurutzia;  
oroitzen nautelarik  
nere artaldiak,  
eta Pinto chakurrak  
ordutik lajiak;  
balirake bezela  
nere señidiak,  
naiz kantari aritu  
askotan jendiak.

*Euskal Erria*, 1915, LXXII,  
319-320. or.

(Azkeneko indar-neurtzeetan  
*aipamen onragarria* irabazia)

### **Artzai ona**

Artaldia larretik  
bildurik zamala,  
artzaya bururatu  
zan bat falta zala;  
ardi galduben eske  
joantzan beriala,  
beste guziyak Bordan  
utzi zitubala.



Arkaiztikan arkaitza,  
basotikan baso,  
eman zuben orduban  
makiñabat pauso;  
gizarajua bada  
tristeturik oso,  
¡negarrez penarekin  
ziyola eraso!

Batetan aztu ziran  
arren zoramenak,  
eta biyotz barrengo  
gozotasun denak,  
chori chiki politen  
kantarik onenak,  
artaldia zaituzten  
aitzen zitubenak.

Ardiya azaldu zan  
andik eguneta,  
errena ta argala  
eridaz beteta;  
ozta ozta sutikan  
Bordako atieta,  
anparuba nairikan  
bere laguneta.

Ardi galduba ara  
azaldu zanian,  
artzayak artu zuben  
bere magalian;  
esanaz: ¡Au da poza!  
laztandu nayian,  
ez nazu gaur azerre  
emen zermanian.

Negar askocho egin  
eta ondorian,  
ona orain artzaya  
umore onian;  
kantari Bordan eta  
kantari lanian,

goizetik arrartzarte  
ardiyen aurrian.

Arech tantai zabalen  
itzal ederrian,  
artzaya ikusitzen  
dute geyenian;  
eguzkiyen itzuli  
bero dagonian  
chakur chiki bat artu  
eta aldamenian.

Mendi batetik beste  
mendirira irrintzi,  
lagunari egiñaz  
artzaya da bizi,  
gozamen aundiyetan  
sufritubaz guchi,  
penak aldebaterra  
zitubala utzi,

Ardirik galdu gabe  
mendiyan geyago,  
arretaz edo zintzo  
geroztikan dago;  
oroiturik zer gerta  
zitzayon lenago,  
eta orain dizkitzu  
askoz maitiago.

Lore ta belarraren  
usai gozuetan,  
artzaya orain beti  
dabil jostaketan;  
micheleta bezela  
barats ederretan,  
artaldia zaitubaz  
euskal-mendiyetan.

*Euskal Erria*, 1912, LXVI, 65-66.  
or.

## Gure mendiyak

Euskal-Erriko mendiyetara  
igo nitzan egunian,  
baserri-churi asko ikusi  
nituben bide danian;  
arbolak ere lorez betiak  
soro eta zelayan,  
elurra egiñ balu bezela  
erruz aurreko gabian.

Eguzkiyaren printzak alaitzen  
zituben toki guztiyak,  
;zeñen ederki diz diz egiten  
zuten belarcho buztiyak!  
chit urrutira erakutziyak  
kolore ikusgarriyak,  
ziduritela danak zaudela  
gañetik urrez jantziyak.

Diamantezko koroi eder bat  
ematen zuben soruak,  
eta aldare argiz betia  
apaindurikan basuak;  
aingeru polit miragarriyak  
egazti edo usuak,  
gure mendiyak orrela jarri  
zizkigun bai Jaungoikuak.

Oraindikane oroitutzen naiz  
eguzki chit indartsuak,  
arkaitz tartetik nola azaldu  
zituben lañu pishuak;  
eta gañera zabaldu ere  
likurta oso gozubak,  
usai oberik eziñ zeikian  
eman barats ta soruak.

Arbol gañetan entzun nituben  
dokant chit alaigarriyak,  
goizetik arrats isbildu gabe  
aritu ziran choriyak;

ta micheletak loretik lore  
egaan zabiltzan guztiyak,  
eta lur petik azaldu ziran  
gañera beste pistiyak.

Artalde eder mardul galanta  
zabaldua belardiyen,  
bildoch pocholo jayo berriyak  
amaren aldamenian;  
mutill sendo bat chakur birekin  
zaitutzen danen aurrian,  
zutikan anchen ikusi nuen  
echolaren itzalian.

Elizacho bat ikusi nuen  
mendi bieren tartian,  
goroldiyozta untzez betia  
ichura dana joanian;  
bañan zaukaizkin iru aldare  
chit politak barrenian,  
zar izan arren estimatua  
daukate auzo danian.

Gauza abek danak oztu ta gero  
iya irichirik beera,  
guretzecho bat sortu zitzaidan  
kolpez aurreko aldera;  
eta aiton bat ikusi nuen  
joan zala aldamenera,  
;erdi negarrez buru utzikan  
errezuak egitera!

Aiton leyalak bere otoitzak  
bukatu zitubenian,  
galdetu niyon gurutzi arrek  
an zer esan nai zukian;  
-Erantzun ziran gizarajuak  
seme joan dan gerratian  
;o! nere aita orchen iltzuten  
azkeneko atakian.

Maiz egoten naiz seme ontzua  
gurutziaren aurrian,

Jaungoikoari errezatutzen  
aita zanen izenian;  
bakar bakarrik etortzen nazu  
iru orduko bidian;  
eta onela ibilliko naiz  
gauka naizen bitartian.

Itz abek esan eta aitona  
beetik gora joan zanian,  
orduban belaunikatu nitzen  
gurutziaren aurrian;  
errezochua egiñ da gero  
echeratu nitzanian  
erriyan sartu baña lenago  
illuna nuen gañian.

Euskal-Erriko mendiyak beti  
oroituko zaizkit neri,  
edo bestela egon biarko  
dizut burutikan gaizki;  
uda-berriyan berriz joango naiz  
Jaunak usten badit ori,  
gurutziaren onduan alkar  
gaite zen aitona ta ni

*Baserritarra*, 1909-01-16, 112. zk.

Elgoibarko Euskal festetan aldeera  
irabazia. 1907

### **Ipuiya edo kontua**

Abenduaren ogeita bostan  
bada aurreko urtian,  
kontu kontari egondu giñan  
oso triste sukaldian;  
chiki ta aundi, zar eta gazte  
denak suen bazterrian,  
gure aitonak au esan zuen  
bere itzkuntza maitian.

Eunta bost urte omen dirade  
Bergaran gertatu zala,  
esan biar det gure aitonak  
orduan esan bezala;  
danok negarrez egondu giñan  
bera itzketan aizala,  
negargarriya da izan ere  
baldin gerta bazan ala.

Gau erdiyan kanpanak *dan dan*  
jendia chit arriturik,  
zer ote dan erri guziya  
oso bildurrak jarririk;  
eliza ondo ikusirikan  
barrenan bazan jenderik,  
kontuan ere ipiñi ziran  
alkate jaunak esanik.

Eliza ondo ikusirikan  
iñor bazan barrenian,  
betiko gisan utzik lajata  
kontuan bai jarri ziran;  
amabiyak išildutzia  
besterik egiñ etziran,  
mezako deiya laster jo zuan  
jendia sartu zediyen.

Iru gabian nabaiturikan  
kanpanak alašen jotzen,  
erriko jende guziya zegon  
bere buruaz nekatzen;  
zer otezan eziñ asmatu  
etzan erreša asmatzen,  
zerengatikan aiziak orla  
ezdun kanpanik ibiltzen.

Alkate jaunak agindurikan  
erriyan jo da bandua,  
bi gizon gogor biar dirala  
artu dezaten kontua;  
aušen entzunik laster joantziran  
jakitiarren lekua,  
eliz barrenen gau baterako  
jartzeko dala asmua.

Eliz barrenan illuntzerako  
kontuan zituzten jarri,  
zer gertatutzen otezan anchen  
jakitiarren chit ongi;  
bi gazte ziran buruz azkarrak  
etziranak ez bildurti,  
oso aurrera apaizetako,  
apaiz ziradenak aurki.

Jan piska bat bai berekin ere  
gaberako omentzuten,  
zortziyetao zaleturikan  
asi omentziren jaten;  
janta gerora denbora luze  
ala gertatu etzaiyen,  
alki gañian biyak musian  
gogor jardun omentzuten.

Amar orduak arizirala  
ango erlejuan jotzen,  
batek besteri ala omendiyo  
¿ez alaiz ikaratutzen?  
bi ordu falta dituk eta  
ni asiya nak bildurtzen  
leku charrian gaur jarri gaituk  
beste batera bai guazen.

Amar orduak išildu dituk  
¡Jesus! aušenda bildurra,  
gu zertako etorri gera  
gaur orrelako lekura;  
guazen emendik piska bat gora  
oso toki segurura,  
lagun maitia lagundu nazu  
zatozkit nere ondora.

Goiyartatikan ikusiko da  
emendik baño obeki,  
lagun maitia esaten dizut  
arras nagola bildurti;  
i ezalaiz ikaratutzen  
emen giotzik chit gaizki,  
koro gañera guazen aguro  
ik naiyaoko dek noski.

Koro gañian biyak zeudela  
amaika orduak jo dute,  
lagun maitia amaikak dituk  
falta zaiguk ordu bete;  
emen ere gaizki giotzik  
bian obeto geundezke,  
zuretzat goiyak naiz ala biak  
guziyak zerbait badute.

Bera jachita nora joango ta  
konfesatzeko lekura,  
ta an bildurak dardar aidian,  
Jesus, arrenchen tristura:  
aušen det lana nere laguna  
zatozkit nere ondora,  
zerbait nitzala uste nun bañan  
utsa jaiyo naiz mundura.

Amabiyaren tankakuakin  
losa arribat alchada;  
arren barrendik eskeletua  
ezur utsik aterada;  
ura ikusirik bildurtiyarren  
arren barrengo ikara,  
bañan bestia bildurrik gabe  
berai joantzaiyo bertara.

Eskeletua beti bezela  
joanda sokai tiratzera,  
kanpana juaz jende danari  
meza adiyazitzera;  
arren kontuan zegon mutilla  
berriz meza laguntzera,  
zerengatikan apaizetako  
jarriya baizan aurrerá.

Biar bezela meza emanik  
mutilla bere ondoren,  
sakristirañon lagundu diyo  
zeindan jakitutziarren;  
gure apaiza eskeletuen  
ichuran egonik arren,  
biyak itzketan jardunairaden  
elkarri zerbait esaten.

Eskeletuak galdetu diyo  
¿nolatan zera etorri?  
alkate jaunak bialdurikan  
orra esan diyot garbi;  
oraiñ nik ere galdetzen diyot  
ia zeindan bai beorri,  
ni naiz bada apaiz šarcho bat  
ez naiz gezurretan ari.

¿Beiñ edo beiñ zuk entzun aldezu  
Bergaran José apaiza  
kaska zuri bar naiko zarchua  
eziñ ibilli zana aisa?;  
aitu bakarrik ezautu ere  
baita lagundu eliza,  
gisarajua chit gizon ona,  
emana bai zenbat meza.

Ni naiz uraşen, orra egiya  
ez det gezurrik esaten,  
laugarren gaba dizut gaurkua  
meza detala ematen;  
zerengatikan zuk ezdakizu  
ezda erreša asmatzen,  
zerengatikan esango dizut  
danak jakindu dezaten.

Ogeita amar mezaren dirua  
aurretik dizut artua,  
eta guziyak bukatu arte  
au da nere pekatua;  
purgatoiyan emenchen nago  
oso ezur biyurtua,  
meza guziyak bukatutzian  
neretzako da zerua.

Alkate jaunai esan zayozu  
elizan zerdan gertatzen,  
On José apaiza Bergarakua  
ia ezautzen altzuen;  
baita gañera erri guziyan  
asi dedilla zabaltzen,  
gau erdiyan bai nola meza bat  
On Jose-k duen ematen.

Meza guziyak bukatu arte  
gabero naiz aterako,  
meza guziyak ogei t'amar dira  
denak ditut bukatuko;  
andik aurrera ez naiz geyago  
losatikan azalduko,  
zerengatikan Jaunak zerura  
berak diraden deituko.

Itz obechek bukaturikan  
joan dezu bere lekura,  
biyararte berai esanik,  
anthen sartu da zulora;  
bada orduan mutill bizkorra  
beste lagunen ondora,  
bañan laguna etzan ageri,  
gerora bai azaldu da.

Kontu kontari biyak zeudela  
etorri da goiz aldia,  
seyyak alašen izango ziran  
iriki dute atia;  
elchuen gisa berriz an zegon  
jakitjarren jendia,  
danen aurretik edo lenbizi  
ikustentzan alkatia.

Alkate jaunak eraman ditu  
biyak artuta berekin,  
erriko echian sartu dirade  
bañan neke aundiyakin;  
jende guziya beren atzetik  
zerbait nai zutela jakin,  
bada alare gelditu dira  
danak len zekitenakin.

Elizan gertatzen bezela bai  
mutillak ziyoten esan.  
alkate jauna aiyen esanaz  
oso konten gelditu zan;  
bada orduan alkate jaunak  
legez egiten dan gisan,  
erri guziyan bandua juaz  
berialašen jakintzan.

Bandua edo dala pregoiya  
ala aitu zan zabaltzen,  
Joše apaiza Bergarakua  
gabian zala azaltzen;  
iñork mezarik entzun nai badu  
libre zuela lajatzen;  
meza guziyak bukatu arte  
jendiak entzun dezaten.

Esan bezela ate guziyak  
zabalik zeuden elizan,  
jendia ere bai mezetara  
oso erruz etorri zan;  
amabigarren tangakuakin  
gure apaiza azaldu zan,  
sokai tiraka mezako deiyan  
beti bezela aitu zan.

Lege onian meza emanik  
ostera bere tokira;  
meza laguntzen mutill gaztia  
oso chincho ibillida;  
ura ikusirik ango jendiak  
chit alai gelditu dira  
meza entzunik gabero orla  
asko echeratu dira.

Ogeita amar aldiz azaldu zan  
bere mezak esatera,  
ogeita amarrak bukaturlan  
etzan geiago atera;  
bitarte ortan beti jendia  
joan zan meza entzutera,  
purgatoyotik gure apaiza  
gero aingeru tartera.

Abenduaren ogeita bostan  
ipui triste au entzunik,  
denok negarrez egondu giñan  
malkochoak idorturik;  
gure aitonak ama euskera  
arren ongi mintzaturik,  
gaur ere bada bere semiak  
ez daukate chit azturik.

*Euskal Erria*, 1895, XXXIII, 500-503. or.

Composición señalada con mención honorífica en los Juegos Florales celebrados en esta ciudad en 1894.

### **Otoitzak mendiyan**

Chori chikiyen kantak  
esnaturikan goiz,  
jeiki nitzan oyetik  
eizerako sazoiz;  
beranduago ere  
joan izan naiz iñoiz  
bañan gogo geyagoz  
ezdakit bada noiz.

Nere chakur Kanelo  
ondotik nubela,  
zaunkaz bide danian  
ari zendubela;  
igo nitzan mendira  
chori bat bezela  
zelai eta soruak  
chit alai zaudela.

Oso arreta aundiz  
pozkiro begira,  
zagasti zabaleta  
ta lore tokira;  
eguzkiya azaldu  
zalarik lurbira,  
ala irichi nitzan  
goiz artan mendira.

Gaur'e goguan dauzkat  
orduko pausuak,  
eisa topatu nairik  
an emandakuak;

eta nola ekarri  
nituben šošuak,  
eran arrapatuta  
tiros ildakuak.

Echera netorrela  
menditikan bera,  
ill nituben šošuak  
erakutzitzera;  
seme ta alabari  
poza ematera,  
¡gurutze bat azaldu  
zitzaidan aurrera!

Jakin nairik gurutze  
arren gora bera,  
joan nitzan baserrira  
galde egitera;  
ta azaldu zitzairan  
aiton bat atera  
borondate aundiyan  
adiyazitzera.

Emen guda bukatu  
eta ondorian  
jende asko ikusten  
genduben eisian;  
igande ta astegun  
egualdi onian,  
tiro otsa bezterik  
etzan ez danian.

Goiz batian zabaldu  
zan auso danian,  
artzai illa topatu  
zutela bidian;  
odola zariyola  
sasi baztarrian  
eisai tira ta jua  
bai uste gabian.

Penakin eiztariya  
andik laizter iltzan,

baserritarrak asko  
maita zutena zan;  
ezautzen etzubenik  
mendiyan bat etzan,  
iñoiz ere nerekin  
emen egotentzan.

Gurutzia jarriya  
dago ordutikan,  
ta artzayak etortzen  
zaizka geroztikan;  
otoitzak egitera  
chit penaturikan,  
Jaungoikoari zerbait  
eskatu nairikan.

Malkoaz buztirikan  
nauzkala begiyak,  
ta alkarri eskubak  
emanikan biyak;  
ikusten nitubela  
goitikan argiyak,  
ala igaro nitun  
orduan mendiyak.

Azturikan bizi naiz  
gaur gure mendiyak,  
eskopeta ta chakur  
eta eiztariyak;  
bildurra zaturikan  
gurutze aundiyan,  
aiton arren ezanak  
izanik egiyak

Gaur ordoyaz beterik  
dago eskopeta,  
artutzen ezdetala  
bada eskubeta;  
Kanelo bigaldurik  
nere osabeta,  
zuburdiyen sartuta  
emendik Elgeta.

Gurutziaz askotan  
naiz gogoratutzen,  
artzai ta eiztariyak  
etzaizkit astutzen;  
bada orduan zaizkit  
malkoak azaltzen,  
eta otoitzak dizkat  
Jaunari egiten.

Gurutz Santubaren  
aurrian chit umill,  
gaur ere jartzen zaizka  
makiñabat mutill;  
errezuak egiten  
jende asko dabill,  
esanaz: jartzai on bat  
emen zizuten ill!

Beste bat ni bezela  
joatenba agiyan,  
eizera echetikan  
or egun-sentiyan;  
gurutziaz galdetu  
zan baserriyan,  
egingo dizkitzu bai  
otoitzak mendiyen.

*Euskal Erria*, 1912, LXVI,  
160-161. or.

(Azkeneko indar-neurtzeetan  
aldeera irabazia.)



## 8. Mozkorrak eta apustuak

### ¡Au senarra!

Ogei urte badira  
Nitzala ezkondu,  
Emeretzitik gora  
Zaitala damutu;  
Gerostik mundu ontan  
Triste bizi nazu,  
Ez nuben senar charra  
Laguntzeko artu.

Aurrak ugaritu ta  
Ayek eziñ azi,  
Ondo det mundu ontan  
Bizitzen ikasi;  
Eta beti senarra  
Lanetik igasi,  
Chanpon bat, ezateko,  
Ezdit irabazi.

Ezdet esaten bada  
Batere gezurrik,  
Oraindik ezdit pasa  
Aste bat osorik;  
Pasako balukere  
Milagroztatik,  
Ezlarake emengo  
Jornalen erdirik.

Kaleratzeko nago  
Bildur da lotsetan,  
Koškak ditutalako  
Alde gusiyetan;  
Eta eche jabia  
Beti erriyetan,  
¡Negarrez bizi nazu  
Bada, erdiyetan!

Jarriko baluteke  
Edo balitzake,  
Senarra lajatzia  
Okerrikan gabe;  
Egiñ gañera berriz  
Beste baten jabe,  
Au utzi ta pozikan  
Artuko nizuke.

Eziñ bizi niteke  
Orla iñolare,  
Mundu ontan besteren  
Laguntzarik gabe;  
Laister egiñ biar det  
Ori dudikabe,  
Senarra utzi eta  
Norabaite alde.

*Euskal Erria*, 1904, LI, 326. or.

### ¡Bai neri damutu!

Ezkondu nitzan gazte  
zarture gazterik,  
senarra artu nuben  
zoro nitzalarik;  
bizitzen ikasi det  
ederki geroztik,  
zenbat sufritzen deran  
nik bakarrik dakit.

Gaur senartzat detanak  
¡ó! artu bañan len,  
alkartutzia biyak  
nai zuben len baitlen;

bera larrizan bañan...  
ni ere alashen,  
ez nitzan ezkonduko  
ezautu banuben.

Asko maite ninduben  
ezkon berriyetan,  
iñoiz artutzerañon  
berak besubetan;  
bañan andikan laister  
giñan erriyetan,  
ta ala ari gera  
ordu guztiyetan.

Lanetik dabil beti  
tranpetan igasi,  
gizon alperragorik  
ez det nik ikusi;  
audala ori dala  
ezdaki noiz azi,  
aspaldichuan ezer  
ezdit irabazi.

Nik ezdakik ez nola  
sortzendu dirua,  
echerutzen da beti  
erdi berdoztua;  
eta gabero jartzen  
du okasiyua,  
oyian egon arren  
naiz andre gashua.

Aur tristia negarrez  
daudez geyenian,  
aita ikusirikan  
ama jo nayian;  
abek gaur edo bigar  
zerbait diranian,  
goguan irukiko  
dute onenian.

Gero esaten dute  
¡Jesús neska zarra!

alegiya egiten  
diyotela farra,  
gazterik artzen badu  
orlako senarra,  
ezdauka mundu ontan  
bizi modu charra.

Jakin izan banuen  
ta neri galdetu,  
edo ezkonduzkeko  
bai egin mandatu;  
naiz amasei etorri  
¡orla arrapatu!  
egin banitzan egin  
¡bai neri damutu!

*Baserritarra, 1909-11-20, 134. zk.*

### **Baserritar bi**

-Joan dan astian bada propiyo  
izanduba naiz Tolosa-n,  
Tolare goiko idi bikañak  
ikustiagatik deman;  
Sagastichikin dituzten beyak  
idiyen kontra ziran joan,  
¡ura jendia, ura dirua  
bada jokatu zana an!

-Manuel lagun aspaldikera  
nik aginduko banuke,  
dema urrena nai luken ura  
illunperatuko nuke;  
akulluakin ganadu ¡o!  
dana odoltzen dizute,  
¡eta negarra gañera ere  
echietan jartzen dute!

-Neroni ere ¡á! Joše Mari  
asiko banitz esaten,

Tolos-aldeko jira orrechek  
ez nau jarri zuzen-zezen;  
chanpon batzubek banituben ta  
anchen lajatu nituben,  
gerostik emen nabill lotsetan,  
lagun danari eskatzen.

Amaika negar baserriyetan  
jartzen duben apostua,  
ezdakit zertan ara joaten dan  
lagun gu bezelakua;  
eta alare griña oraindik  
izanik eskarmentua,  
gaurtik geyago ez nazu joango  
¡orra bai juramentua!

-Nik ere bada zuk bezelañen  
artuko dizut apecho  
zeren lendikan ditutalako  
eskarmentuak ondocho,  
deman dabilizan abek liteke,  
egitia bai panpacho,  
gaurtik aurrera ezdizut lagun  
jokatu bear ezercho.

A zer atsegiñ artuko degun  
dema debekatutzian,  
zeñen pakian biziko geran  
bakoitzak geran echian;  
apostu lanak arrunt utzita  
zintzo-zintzo zelayan,  
¡á! Jaungoikuak osasun ona  
ematen digun artian.

*Baserritarra, 1907-06-08, 70. zk.*

### **Betiko damua**

Idi baten dirubak  
berekin artuta,

jantzirik gañetikan  
zerbait chukunduta;  
dema zala goizetik  
lendik jakinduta,  
Anton joan zan echetik  
trenian sartuta.

Anton bezela beste  
toki askotatik,  
nola baserri eta  
bai ere kaletik;  
dema zan egun artan  
alkar billaturik,  
an ziran istilluak  
ojuka asirik.

Berrogei oitamarren  
ogei amabosten,  
milla apostu orla  
nola diran nasten;  
idiyak diranian  
plazan azaldutzen,  
Anton bezela asko  
dira berotutzen.

Idiyaren dirubak  
eskuban artuta,  
ala diyo Antonek  
poltsa zabalduta;  
tori bai ogeitamar  
berrogeiren kontra  
etorri berriz ere  
dirua badeta.

Galdurikan onela  
zituben dirubak,  
Antonekin izandu  
ziran ištilluak;  
gaba gañian eta  
patrikak ustiak  
oirik eman nai ezta  
berriz ostatuak.

Panparroi aruntzian  
sarturik trenian,  
oñez eta chit umill  
Anton onuntzian;  
andriakin aserre  
ordutik echian,  
itzarik egin gabe  
biyak alkartzian.

Demak izandu dira  
geroztik askotan,  
bañan Antonik ara  
ezda geyago joan;  
ezdu nai aitortzia  
orlako gauzikan,  
ori debekatzia  
lenbailen baizikan.

Ezin bildurik dabil  
idiyen diruba,  
igurtzirikan bada  
gaut egun burua;  
iñoiz azaldurikan  
begitik malkua,  
Antonek ara orain  
betiko damua.

*Baserritarra, 1909-05-08, 120. zk.*

### **Betiko kanta**

Ai nere Antoniyo  
beti erriyetan,  
orditua zatoz ta  
geyen geyenetan;  
goizetik joaten zera  
nai dan garayetan  
eta echera berriz  
urrengo laueta,  
eta beste askotan  
lo eginda bertan,

bidian erorita  
sasi baztarretan,  
igual gelditzenzera  
iñoiz trabenetan,  
diruak aitu arte  
ardo kopaketan,  
naiz egon fameliya  
danen biarretan.

Mutik koskor guziyak  
burlaka atzetik,  
kalian alderoko  
bada ikusirik;  
egun erdiyan ala  
ez dezu lotzarik,  
askotan buru utzik,  
chapela galdurik,  
eta beste askotan  
dana markaturik,  
ez dezu ez egiten  
len bezela lanik,  
lurrak or daukaizkitzu  
alperrik galdurik,  
ara ba Antoniyo  
zu emen utzirik,  
Amerikara nua  
aurchuak arturik.

*Baserritarra, 1909-06-05, 122. zk.*

### **Erdi erua**

Aitondu ta dantzara  
igande eta jai,  
jendien farragarri  
ortzabiltza zu bai;  
goizetik arratsarte  
ekeñik zurrutai,  
bada toki askotan  
saltzen dauden mamai

echea alderoka  
zatozkit bai noiz nai.

Zelaiko lanak utzi  
dituzu batera,  
astegunian ere  
or zubaz kalera;  
achur da layarako  
bai zartu bazera,  
eta jayetán zubaz  
dantzán ibiltzera,  
illia zuruturik  
lotsatzen etzera.

Zu bañan zarragubak  
dabiltza lanian,  
goizetik arratsarte  
gogoz zelayean;  
iserditzen dirala  
ari diranian,  
dantza ta zurrutari  
utzirik pakian,  
emazte ta semien  
bai aldamenian.

Erariyak mendian  
artu zaitu iya,  
zartzera gizonentzat  
azer alderdiya;  
buruan jarri zaizu  
dantzako maniya,  
etzera gogoratzen  
zure fameliya,  
eta orain echian  
dagon misheriya.

Ganadu gashubari  
eman gabe jaten,  
gizona echetikan  
noiz nai zera joaten;  
ez dezu achurrarik  
eskubetan artzen,

eta apenaz zeran  
ukulluan sartzen,  
etzera zikinduko  
azpiyak egiten.

Ausuben farragarri  
bizi ez gaitian,  
gure familichuan  
gañera pakian;  
zaya zaitez gizona  
zure zelayean,  
bestela laister gera  
betiko lurpian,  
eta azi biarrak  
ondoren eskian.

*Baserritarra, 1911-01-14, 164. zk.*

### ¡Gizon diabrua! (I)

Igande ta astelen  
larunbat gabian,  
iñola eziñ egon  
zerade echian;  
zenbait diruben jabe  
egiñ ondorian,  
Jaunak dakiyen arte  
zaudez churrutian,  
alderoka etortzen  
zera goiz aldian,  
zalaparta aundiyan  
danak jo nayian,  
esnatzerañon lotan  
daudenak oyian,  
aurrake daukaizkitzu  
bildurrak aidian,  
ni ere ala nabil  
bai oraiñ artian,  
¡zuzenduko altzera  
bada noiz baitian!

Astian iru egun  
bada lan egiñik,  
ezdezu familian  
utzitzen dirurik;  
emazte ta aurchuak  
barrendikan utzik,  
auldadiarekin  
indar danak joanik,  
echian da kalian  
osta osta zutik,  
eztaltzeko gañetik  
ezer gabetandik,  
beti erdi negarrez  
eta lotzaturik,  
batzubetan eskian  
zerbait bildu nairik,  
biyotza lertzerañon  
triste kupiturik,  
Jaunari erresatzen  
malkotan urturik.

Ezkondu nitzan bañan...  
¡Jesus Jaungoikoa!  
alferrik izan arren  
nago damutua;  
senarra artu nuen  
oso pikarua,  
ordiya ta utziya  
chit gañ gañekua,  
eta aspaldichotik  
daukat esautua,  
gure orde z gaur maite  
dubela ardua,  
esan liteke dala  
danaren maisua  
goizetik arrartzarte  
ustutzen basua,  
eta ara gañera  
emen milagrua,  
chinchotzen balin bada  
¡gizon diabrua!

*Baserritarra*, 1910-01-15, 138. zk.

## ¡Gizon diabrua! (II)

Esan arren alferrik  
zuk beti zuria,  
etzaizu ez aztutzen  
taberna bidia;  
gaberako echera  
zatozkit betia,  
irizten dan bakoitzen  
bada igandia.

Astian ere bapo  
badakizu jartzen,  
eta egun erdiyan  
kalian lo artzen;  
gañera alderoka  
echera etortzen,  
¡ta zer esango duten  
etzera lotzatzen!

Ezin bizirik gaudez  
arrunt misheriyan,  
eta arlotienak  
gaur auso guziyan;  
iya geratzerañon  
bai larru-gorriyan,  
ezer ezdaukagula  
bada baserriyan.

Lurrak jorratu gabe  
ukulluak utzak,  
kalera azaltzeko  
zorrarekin lotsak;  
abek ekarri ditu  
bizi modu motzak,  
gizon zurrut saliak  
ta langille otzak.

*Baserritarra*, 1910-05-07, 146. zk.

### **Lengo lepotik burua**

Gazte denboran biyurriya ta  
zartuta eziñ zuzendu,  
ezdakit nola edo noletan  
onela guiñan alkartu;  
aspaldichotik damu derala  
eziñ nezake ukatu,  
ez nitzan bada orla biziko  
nik au jakin izan banu.

Ogeibat urte izango dira  
biyok alkartu giñala,  
iruritzenzait berrogei ere  
guchiyenaz badirala;  
ordu ezkeru emenchen nabil  
Jaunak dakiyen bezela,  
egun char asko bada gerostik  
zurekin damaizkitela.

Larun batetik azitzenzera  
astelenian bukatu,  
bitarte ortan ¡Juangoiko ona!  
zeñek zurekin burutu;  
baztar guziyak puskatu biar  
iñoiz eskua alchatu,  
mundu onetan bizituteko  
ez nun lagun charra artu.

Ikaragarriya da askotan  
zure echekeo sarrera,  
iñoiz dakizu erortzen ere  
erresh aurreko aldera;  
utzalitzake joango boziña  
pake onian oiera,  
eskamillan ta okasiyuan  
beñere ishiltzen etzera.

Echera gabe ibiltzen zera  
nai dezun arte kalia,  
zeñek lanera eramanazi  
orla azten zeranian;

aiko ziñake aspertu gabe  
nere ustez eranian,  
erriyan diran sagi ta kupel  
guziyak ustua artian.

Mundu onetan gauzik charrena  
zuretzat dezu dirua,  
oraiñ artian dezumerako  
zaudezelako galdua;  
aspaldichotik zertzeran bada  
ongi nago ezantua,  
aurrera ere izango dezu  
Lengo lepotik burua.

### **Mama gareziya**

Lukanbiyo ta Lukaz  
bi lagun aundiya,  
alkaturik lenguban  
aiñ bño jarriyak;  
ez oraiñ saltzen dauden  
sagardo berriyak,  
¡bañan bai Ergobiko  
mama izugarriyak!  
naiz kale zabalak gaur  
izan Donostiyak,  
alderoko artutzen  
zizkaten neurriyak,  
par egiten zularik  
an jende guziyak,  
gañera zamaizkiten  
berekñ guardiyak.

Andik egun batzubek  
alkaturik biyak,  
ara orduko ayen  
itz da armoniyak;  
Lukanhiyok Lukasi  
aditu akiyak,  
moraturik zioztik  
gure arpegiyak,

engañatzen giotzik  
errez erariyak,  
ta par egiten ziguk  
gaur erri guziyak,  
ezpaitugu zaitutzen  
zurruten neurriyak,  
Churkunan andituk  
ezurda mamiyak.

Lukanbiyo itzketan  
aspertu zanian,  
Lukaz orla azi zan  
bada ondorian;  
bapo jarriyak gaitut  
joan dan igandian,  
bañan naiz mama egon  
Ergobi aldian,  
ez nak ez berriz joango  
ara puzkatian,  
oraiñdikane damu  
zaukat barrenian,  
gauz abek diralako  
geronen kaltian,  
chinchotuko algaituk  
egunen batian.

Itz abek esan eta  
chit egarriturik,  
tabernan sartu ziran  
alkarren ondotik;  
sgiñ zituzten gauzak  
bai arrunt asturik,  
ta Ergoiko mamaz  
biyok zaleturik,  
ori alkate jaunai  
multa pagaturik,  
bañan alferrik dezu  
baldinba zurrutik,  
berrizere guardiak  
andira ondotik,  
ezin ibilli bada  
diranian zutik.

*Baserritarra*, 1910-11-19, 160. zk.

## **Orditzia gala**

Sagar guchi izana  
ezagunda aurten,  
pitarrak ari gera  
danian eraten;  
gañera chit garezi  
dagubela saltzen,  
urekin naiko chanpon  
dutela artutzen.

Sagardo charrak oso  
alatzu ardua,  
zortzi chakur chikiyan  
gaur chiki bikua;  
eta danok izanik  
sobra biziya  
chit errez joaten dezu  
pobrien dirua.

Osasuna galtzeko  
jarririk bidian,  
gauza charrak edanaz  
biar ezdanian;  
eta ezaguturik  
gerentzat kaltian,  
iñoiz ekartzerañon  
negarrak echian.

Orain saltzen daudezen  
ardo sagarduak,  
zerbaitekin agiyan  
litezke nastubak;  
ortik etortzen dira  
chartzera buruak,  
ta jarri azi ere  
iñoiz erotuak.

Ez gera mundu ontan  
ezer ezdegunik,  
danok zerbait degula  
ori badakit nik;



bañan edaritikin  
esdator gauz onik,  
asko sartu ezkeru  
ezdago gizonik.

Kontuz gaurtik aurrera  
gu jarri gaitian,  
bizi gaitezen danok  
paketasunian;  
edaritik albada  
oso apartian,  
damutu gabetandik  
egunen batian.

Barkatu bada orain  
bai nere esanak,  
naiz ez izanagatik  
orlakuak danak;  
bañan badakizute  
ascotan edanak,  
mundu ontan ematen  
dizkitzula lanak.

Abek izanagatik  
orain arte ala,  
dakigu ontarako  
beti biltzen dala;  
jartzerañon zutikan  
gauza ezdirala,  
askok dizutelarik  
orditzia gala.

**¡Zer bi!**

Bete bete egin da  
kallan kantari  
lengo egun batian  
zabiltzan gazte bi;  
balantz aruntp onuntza  
bestian erori  
zikiñdubak loyetan  
danen farragarri.

Batek chapela galdu  
zuben burutikan,  
eta bestiak berriz  
bada oiñ utzikan;  
mutill kozkor pilla bat  
beren ondotikan,  
ori dek ori lupa  
diyotelarikan.

Oso gazterik azi  
dira zurrutian,  
gurasubak laguntzen  
zintzo biarrian;  
eta orla badira  
gizon egitian,  
maiz izango dizute  
negarra echian.

Gabterikan arturik  
orlako karerra,  
gauz onikan ezdator  
batere zartzera;  
eta joan biarrian  
askotan echera,  
emango dituzte bai  
lotara perrera.



## 9. Erruki-bertsoak eta fede-girokoak

### Aiton fedetsua

Euskal-erriko mendi chuluan  
eliza zarcho bat zutik,  
gaur ere apañ arkitzen dana  
kamptik eta barrendik;  
joan dan urtian ikusi nuen  
Donostiya tikan joanik,  
;ta egun ura oroitutzen naiz  
milla alditan geroztik!

Chori chikiyen kantu politik  
aditurikan bidean,  
ala irichi nitzan eliza  
alaitasun ederriyan,  
zelayak lorez oso apañak  
zaudela goyan ta bian,  
likort gozoak zabaldurikan  
lañuben gisa danian.

Beetikan gora alde daneta  
begira nijubarik,  
ezkillen otsa nabaitu nuen  
bañan oso urrutitik;  
.....  
nola zetorren menditik,  
eskapulayo bendikatuak  
kolkoban erakutsirik.

Lagun ordezeko lizar makilla  
zebelarikan eskuan,  
eta chakur bat bere ondotik  
jostallu baten moduan  
eliz aldera zetarren bizi  
mezetarako asmuan,  
mutill gaztia balitz bezela  
urte askoren buruan.

Eliz onduan alkartu giñan  
ni gora ta ura beera,  
mezetarako deya oraindik  
tan tan ari zendubela;  
ezautu nuen aiton ontzuak  
zerbait esan naizubela;  
ama euskeran esku emanta  
asi zitzaitan onela:

Mendiburuko baserritikan  
adiskidea onera,  
ordu terdiko bidea dago  
bada guchi gora-beera;  
urte guziyan etortzen nazu  
aldare baten aurrera,  
meza santua entzunaz Jaunai  
errezuak egitera.

-Aiton fedetsu doakabea  
sartu zanian elizan,  
goitikan beera Donostiyara  
zuzenian jachi nitzan;  
eta geroztik arkitzen nazu  
pozak zoratu nairikan,  
euskaldun arren esan eztiyak  
biyotza alaiturikan.

;O! nai nizuke Jaungoiko onak  
laguntzen diralarikan,  
aiton arrekin alkartutzia  
mendiyan gora joanikan;  
Uda-berriyan zelai guztiyak  
daudela loreturikan  
eguzkiyaren printzak goizetik  
azaldurik zerutikan.

*La Euskaria*, 125. zk., 1909-01-09

## **Ama Birjina ta aurchoã**

Zar da gaztiak kanta  
gaur gora begira,  
gure Jaun da jabia  
dagoan tokira;  
egaan igo gaitezen  
utzirik lurbira (1)  
glorijan bizi zera  
zeruben erdira.

Amgeruchuak pozaz  
daude gaur zeruan,  
danak sañira juaz  
jarririk kontuan;  
koroï eder eder bat  
arturik eskuan,  
aur jayo berriyari  
jazteko buruan.

Zerua ta lurraren  
jabe dana gaurtik,  
jayo zaigu Belenen  
Birjiña-ren gandik;  
artzaiyak zaiturikan  
belaunikaturik,  
kanta polit politak  
berai kantaturik.

Maite zangun pozkiro  
aur jayo berriya,  
esanaz: ¡izan zaitez  
ongi etorriya!  
bai eta ere maita  
Birjiña Mariya,  
goza dezagun danok  
zeruam gloriya.

¡O! aur zoragarriya  
zure etorrera,  
da bizi geran danok  
fedez zuzen zera;

orreatatik kantari  
konten ari gera,  
esanaz, ¡atoz atoz  
gu eramatera!

Maita ditzagun beti  
pozturik biyotza,  
Oroiturik Belenen  
izan dan jayotza;  
deitzi arren zerutik  
atozte onuntza,  
irizten danerako  
geren eriyotza.

(1) Munchu.

## **¡Arrantzale tristiak!**

1. Errukitu gaitezen  
¡O! Kristau maitiak,  
Larri dabiltzalako  
Gaur arrantzaliak;  
Sufritzen daudez eta  
Famili tristiak,  
Ez diyotelako ez  
Laguntzen suertiak.

2. Portutikan urruti  
Itsasora joanik,  
Eziñ ekarri dute  
Andikan arrairik;  
Iñoiz etortzen dira  
Abek esku utzik,  
Tresak eta kordelak  
Urian galdurik.

3. Ikusirik andria  
Ikusirik aurra,  
Negarrez azitzen da  
Orduan senarra;

Esanaz; ¡Jaungoikua!  
¡Au da suerte charra!  
Batere kulpik gabe  
Gaur etorri dana.

4. Egunaz eta gabaz  
Dabiltz itsasuan,  
Aize otzak arturik  
Beti arrashkuan;  
Sayatzen dira bañon  
Orain dañokuan,  
Alare ezin bizi  
Dituzu munduan.

5. Diruri Jaunak utzi  
Ditula eskutik,  
Arrantzale gashuak  
Chit aspaldichotik;  
Beti datozelako  
Itsasotik utzik,  
Ortik bizi biar da  
Arrantzara joanik.

6. Itsasua aserre  
Jartzen dezunian,  
Arrantzaliak triste  
Daudez legorrian;  
Ikusirik misheri  
Gorriya aurrian,  
Ogirik ez dutela  
Jateko echian.

7. Beren neketik bizi  
Dira gizajuak,  
Langille paketsuak  
Gizon ondraduak;  
Danok ondo dakigu  
Iñoiz itsasuak,  
Betiko eskutatzen  
Ditula ituak.

8. Papercho bana artu  
Danok ichuari,

Ikasita aritu  
Zaitezten kantari;  
Bidez biyotzetikan  
Esanaz Jaunari,  
Laguntzeko zerutik  
Arrantzaliari.

Bertso-papera. Tolosa: Imp. E.  
Lopez

**¡Au pena!**

Seme eder maite bat  
guda (1) eramanik,  
gaurre bizi gaituzu  
ura gabetandik  
.....  
joan zan ezkeroztik,  
beste asko etorri  
dirala geroztik  
¡illdala onezkero  
echian etzirik!

Ezda milagro bada  
izatia pena,  
orrela galdurikan  
semerik onena;  
echian laguntzeko  
zana biarrena,  
ogei urte artian  
azi gendubena,  
sasoyo emanda...  
¡gero besterena!

Ain zan mutill leyala  
eta langillia,  
zintzua danian ta  
guraso maitia;  
soldadu erortzia  
guretzet kaltia,

guda bukaturikan  
egin zan pakia,  
¡bañan ez da azaldu  
orandik semia!

Negar ta negar gaudez  
ordu guzietan,  
azaldubaz malkuak  
bada beguiyetan;  
esdegula berririk  
gau egun kezketan,  
esanez, ¡ai balego!  
amen besubetan,  
onela bizi gabe  
lurbiran penetan.

### ¡Betiko negarra!

B ga char batek bereganatu  
zituben gisaraisoak,  
eta gañera betiko galdu  
aingeru chit maitechoak;  
amen onduan bizi ziranak  
malezirik gabekoak,  
¡orain negarrez daudez echian  
bada beren gurasoak!

Iru aurcho ta gizon egiñ bat  
urian dira ituak,  
arrantzara ta denbora pasa  
arranplara joantakoak;  
uste gabian orla etortzen  
dira begira malkoak,  
orain zeruban gorde ditzala  
danak gure Jaungoikoak.

*Baserritarra*, 1910-07-30, 152. zk.

### Gabon kantak

Arzayak pozaz datoz  
Belengo atera,  
ardiya utzirikan  
menditikan bera;  
saltoka ta irrintziz  
Jesús ikustera,  
aurrian jarririkan  
adoratutzero.

Gure Ama Birjiña  
gaur dago Belenen,  
aurcho jayo berriya  
pozaz erakusten  
eta arzayak berriz  
aurra adoratzan,  
alakošeko kanta  
politak kantatzen.

Guk ere kanta zagun  
belaunikaturik,  
aurcho jayo berriyaz  
bada oroiturik;  
denon jabe au dala  
barrendik esanik,  
eta biyotzetikan  
beti maitaturik.

*Euskal Erria*, 1898, XXXIX, 574.  
or.

### ¡Canposantura! (I)

Triste negarrez beera begira  
Oroiturik iltziranak,  
Kanposantura joan biar degu  
Oraindik bizi geranak;  
Lege Santu au erakutzirik  
Utzi zigulako amak,

Eta fedetsu biyotz biguñak  
Emen izanikan danak,  
Kupiturikan gure otoitzak (1)  
Gaur an egiten diranak,  
Entzungo ditu beti bezela  
Bada zerutikan Jaunak.

Guraso umill alkar maitiak  
Ta aurcho doakabiak, (2)  
Aingeru polit amen pozgarri  
Penak alaitutzalliak;  
Mundu onetan diran gauz onen  
Jayotzetikan jabiak,  
Illtziran eta Kanposanban  
Lurpian daude gordiak!  
Gaur da eguna ara joateko  
Zar danak eta gaztiak,  
Errezatzera Jaungoiko-ari  
¡Zeruratzeko tristiak!

### ¡Kanposantura! (II)

Jaunak nairikan oraindik emen  
bizi, geran gurasuak,  
anai, arrebak, zar, da gaztiak,  
aberats da, biartsuak,  
Kanposantura guaz negarrez  
zer edo zer fedetsuak,  
¡Oroiturikan ill da lurpian  
arkitzen diran gashuak!

Batek aita ta bestiak ama  
aur chiki aingeruchuak,  
biyotz barrendik ezin geyago  
beti maitatutañuak;  
egun triste bat irichi eta  
Jaunak eramantakuak,  
Kanposantuan danak an daudez  
ezur da auts biyortuak.

Kanposantura buru nekatzen  
irizten gaitusunian,  
nabaitzen degu tristetasun bat  
beti geren biyotzian;  
eta malkoak azaldu azi  
berri bere, ondarian,  
esanaz bada; ¡ó! iltziñaten  
biarrik aundiyenian.

Mundu ontako gozamen danak  
maitasun eta diruak,  
gizon indartzu oso bizkorak  
eta buruz jakintsuak,  
ezin obeto bizi ziranak  
gurekin bai alkartuak,  
ala biar da Kanposantuan  
gaur daudez lurperatuak.

Santu danaren eguna degu  
egun oroimengarriya,  
alaya dalik alde batera

.....  
Kanposantua dezu guretzat  
¡ó! malkozko iturriya,  
gurutziaren aurrian triste  
erregutzeko tokiya.

Nola guretzat etorriko dan  
usterik guchiyenian,  
Kanposantura eramatia  
ill da andik ondorian;  
naiko dizegu bat edo beste  
baldin badegu echian,  
oroitutzia gutzaz onelan  
Santu danen egunian.

## **Limosnacho bat**

Bista lagurtu ezin ikusi  
goitik beera baldatua,  
nekazaritzan orain artian  
¡o! chit asko nekatua;  
ezin biziyaik ainbesterañon  
nago bada argaldua,  
ezin ibilli naita iñola  
indar guztiyak galdua,  
gaur limosna bat eskatutzen det  
egiñikan errezua,  
lagun zairazu arren da arren  
biyotzeko Jaungoikua.

Kupi zaitezte ni ikusirik  
aberats da biartsua,  
ezda milagro ortaratzia  
ezer ezduben gajua;  
ez nazu gauza ezertarako  
auda nere ishtillua,  
bakar bakarrrik gelditu nazu  
amar aurren gurasua,  
gaur limosna bat eskartzen dizut  
egiñikan errezua,  
oroitu bedi zeru edertik  
biyotzeko Jaungoikua.

*Baserritarra, 1909-07-03, 124. zk.*

## **¡Otoitzak! (1)**

Jaun aundiyari errezo onak  
Beti bezela egiñ ta,  
Lezo aldera abiya nitzan  
Egun-sentiyan jaikita;  
Baztar guziyak alai topatu  
Nituben lorez jantzita,  
Chori chikiyak pozaz kantari  
Eguzkiya ikusita,

Ala bidian nijubalarik  
Beste lan danak utzita,  
Ermitacho bat an azaldu zan  
Belarrakin eztali ta,  
Aldarechoan Santa Bárbara  
Biar dan gisa jarrita,  
Bildomena ta kandelak zeuzkan  
Norbaitek ara ekarrita.

Ate aldera alako batez  
Begiratu nubenian,  
Neshka koshkor bat sartu zan bada  
Loriakin mantalian;  
Eta galdetu niyon berari  
Etorrizan ondorian,  
Aingechua esan zairazu  
Emen gauden bitartian,  
¿Zertara onuntz amak bigaldu  
Zaitu bakarrrik bidian?  
-Erantzun ziran itz eztiyetan  
Gure euskera maitian,  
Lore sort abek Santa Bárbarai  
Jarritzera aldarian,  
Aurrera ere fede Santuban  
Danok bizitu gaitian.

Orduban milagrozarri bada  
Joanik aurreko aldera,  
Biyotzetikan ¡O! esan niyon  
Nator errezatutzero;  
Aspaldichotik ezaguturik  
Euskal Erriko galera,  
Eta atzentzen ari dalako  
Gañera ere euskera,  
Zure laguntza Santa nai degu  
Erori gabe lurrera;  
Leno bezela ikusi nai bai  
Ditugulako ostera,  
Antziñetako lege maitiak  
Bestela galdubak gera,  
¡Dabiltzalako etsai gaiztubak  
Sartu nairikan lurpera!



Etzait aztuko neri beñere  
Añ goiz alaigarriya,  
Berriz azaltzen zalla dalako  
Alakoshe bat mundura;  
¡O! atsegiñ artu nubelako  
Begiraturik zerura,  
Danian urdiñ ikusirikan  
Itsas zabalen modura,  
Eguzkiyaren urrezko printzak  
Irichirikan ondora,  
Lore-illa zan uda-berriya  
Izan nitzan egun ura,  
Santa Bárbara erregutzera  
Bai Alza-ko ingurura,  
Euskal-erriko lege maitiak  
Igotziarren gaur gora.

(1) Oraciones

*Baserritarra*, 1910-10-22, 158. zk.

### **Ušo mandatariya**

Ušo churi bat oso polita  
ikusi dizut lenguan,  
zelai gorriyan beti mokoka  
ez dakit zer jaten zuan;  
gerora berriz ikusi dizut  
ušu au kanpo-santuan,  
jira ta bira gelditu gabe  
aingeru baten onduan.

Paper chiki bat bertan laja ta  
alde egiñ dizu egan,  
nere barrena eziñ egonzan  
ikusi gabe au zer zan;  
paperchu ori chit zaleturik  
artu dizut eskuetan,  
itz polit obek jartzen zituben  
urre gorrizko letretan.

Jaunak bialdurik etorriya naiz  
mundura ni mandatari,  
gurasochuak jakin dezaten  
beren aur maitien berri;  
emen lur-pian egonagatik  
egan joan zaizka Berari,  
berri obechek gaur zerutikan  
onera ditut ekarri.

Jakin bezate, bada, guraso  
aurchoen faltan daudenak,  
Jaunak berekin daukazkiyela  
zeruban arturik denak;  
ušu onechek gaur kenduditu  
gorderik zeuzkaten penak,  
aušen da poza senti dubena  
oraiñchen beren barrenak.

Chori chiki ta lore tartian  
daude gaur gure aurchuak,  
beti jolasten aldamenetik  
dituztela aingeruak;  
beti ta beti orla iduki  
ditzala gure Jainkuak,  
gauza oberik eziñ desio  
maite ditun gurasuak.

*Euskal Erria*, 1897, XXXVI, 505.  
or.



## 10. Oroitzak eta omenaldiak

### ¡Aingeru maitia!

Kristau Jaungoikozkoak  
bagera munduan,  
egon nai gendukenak  
beraren onduan;  
gu bañan geiago bat  
leno bagenduan  
¡Madalena Larralde  
dagona zeruan!

Chikitandikan au zan  
elizara asi  
beñere elizarik  
etzizayon antzi;  
beti erregututzen  
munduan zan bizi  
orrelašen zerua  
zuen irabazi.

Madaleni egiña  
ezdaukat antziya  
¡nola kendu ziyoten  
tristiari biziya!  
etsaiyai esanaz  
barrendik egiya,  
¡bat orrela illtzia  
da penagarriya!

Gerratia zelarik  
bere erritikan,  
Frantzitik Españira  
gašua etorri zan;  
konfesatziagatik  
Bera-ko elizan;  
onen bokaziya  
ortarako izan.

Ispitzat Madalenchon  
preso arturikan,  
eta agintariyak  
gogor ekiñikan;  
berak nai zutenikan  
eziñ egiñikan  
¡gillotinan illtzuten  
orrenchen gatikan!

Nola berez zenduen  
Kristau fedetsua  
eta beti goguan  
zeukan Jaungoikua,  
¡ill zuten ordurako  
Madalen gašua,  
aingeruak zabaldu  
ziyoten zerua!

*Euskal Erria*, 1896, XXXV, 377. or.

### Aitonak illobachoari

Aingeru polit zoragarriya  
aurcho chit maitagarriya,  
arpegi alai zeru urdiña  
mundutarren eguzkiya;  
dizdiz egiñaz bizi zerana  
edertasunez jantzia,  
lore guztiyen loria eta  
ishpillu ikusgarria.

Jaungoiko onak egoan bigaldu  
zaitu onera zerutik,  
poztu gaiten zen triste gaudenak  
izarra zu laztandurik;  
esanaz danak, ¡aushen da aurre!  
ezda ez ederragorik,

bat alaitzeko berai begira,  
aurreko aldian jarririk.

Es det asmatzen itzik iñola  
buru nekatzen jarrita  
zayatu arren goizetik arratz  
beste lan danak utzita;  
bakarrik dakit bizi zerala  
zerrutik bada jachita,  
mundu onetan argi egiñaz  
nere illoba Rosita.

### **Barkatu**

Biyoz leyala danen maitia  
deai aundiyaz jantziya  
itz neurtzalle gaiñ gañekua  
eta euskaldun garbiya;  
gausa sall asko erabakitzen  
arrunt chit oso argiya,  
au da jauncho bat asi zaiguna  
gaitalchatzen Donostiya.

Euskal erriyan ikusirikan  
asko dabiltzala arro,  
ama euskera jarri anzikan  
orain bada chit okerro;  
bere semiak gaur zaitu biar  
aldamenetik biarro,  
orrenchengatik gabaz da egun  
dago on Luis Latierro.

*El Pueblo Vasco*, 1912-10-06

### **Beste aingeru bat**

¡O! ill zizaigun, On Antonio Arzac!  
¡Ill da zure euskera!

Zerura joandan ezkeroztik  
Chit illun gelditu gera;  
Orlakoše seme baten jabe  
Berriz, ¿noiz egingo gera?  
Danok bizitu gaitezen emen  
Parrez ta alai osterera,  
Onuntz jaizten danian gugana  
Berriz, zerutikan bera.

*Euskal Erria*, 1904, LI, 362. or.

### **Beti kantari**

Sagardo ona saltzen badago  
an izango da goizetik,  
ezdakit zenbat baso edaten  
bada dituben chochetik;  
kantari laister azitzen dezu  
esherita edo zutik,  
egun guziyan ezda ishiltzen  
apenas dagon pechutik.

Milla klaseko kantok dakizti  
ez dezu buruz tontua,  
eta gañera bosa ederra,  
danarekin bromosua;  
umore ona gustatzen zayo  
bañan... maiz ere basua,  
triste daudenak alaitutzeko  
dezu oso artakua.

Oneren kantan aditzen beti  
egoten dira gustora,  
azi orduko bada anditu  
danak pozkiro ondora;  
nola euskeraz ala erderaz  
etortzen zaizka burura,  
bateri penak aztu azteko  
jayua dezu mundura.

Basua uztu orduko bada  
ekiten diyo kantari  
far egin azten diyolarikan  
dagon jende guztiyari;  
bertso pollita ikasiyada  
eta dakizki ugari,  
choko bateti oni aditzen  
egon izan naiz neroni.

Hernanitikan Donostiyara,  
.....  
gizon leyalan bide zuzenez  
zayatutzera familiya;  
emen geyenaz maite dizute  
dalako berez argiya,  
aberats, pobre, zar da gaztiak  
ondo dago ikusiya.

Orain bezela aurrera bizi  
Marzial urte askuan,  
Donostiyatik iñora gabe  
zayaturik itsasuan;  
umoria ta broma pasiez  
.....  
lagun artien onak uztubaz  
zutik kupelen onduan.

### ¡Egiñ negar!! Ilda On Ramon Artola

Jaunak zerura eraman zaitu  
omen utzirik negarra,  
gizon onradu chit paketsua  
eziñ geyago leyal;  
buruz argiya eta umilla  
itz neurtzalle azkarra,  
Ama euskera eskribatzeko  
askotatikan bakarra.

¡Bai! Makiña bat seme dijuaz  
Euskal-erritikan orla,  
beti betiko biar ziranak,  
Jaunak ematen ditula;  
gaur euskaldunak negarrez gaudez  
zer gerta dan dakigula,  
biyotzetikan triste esanaz;  
¡Ilda On Ramon Artola!

Donostiyan Aboztuaren 21-an 1906-  
an

*Euskal Erria*, 1906, LV,  
203-204. or.

### ¡Ill da!

Aspaldichotik nuben  
lagun maitiena,  
Ama euskera garbi  
mintzatzen zubena;  
aingeru bat kantari  
esaten zutena,  
iskribatzallietan  
sanikan onena;  
legez irabaziya  
ainbeste omena,  
gizon buruz argiya  
asko zakiyena;  
oroitz ederrak emen  
utzi ditubena,  
¡ill da! Jose Zapirain  
¡au da nere pena!

*Euskal Erria*, 1914, LXXI, 216. or.

## ¡Ilda Kosta!

### Oroitza

Gaur Españaia negarrez dago  
¡eta ezda milagrua!  
illtzayolako beti betiko  
gizon oso jokintzua;  
buruz azkarra eziñ geyago  
emen danon biartsua,  
gauz eder asko argiratua  
zana chit estimatua,  
onen oroitza irukiko da  
munduan ongi jasua,  
esan dezagun maite degunak  
¡Ai Kosta gisarajua!

¡O! ill-da gure On Joakin Kosta  
emen genduben gloriya,  
eskribatzalle gain gañekua  
eta izar gidariya;  
lutoz jantzirik gelditu dezu  
luzaroko Españaia,  
besubetatik joan zayolako  
seme chit maitagarriya,  
ez da aztuko oenen kondaira  
edo bere historiya,  
mundu guziyan dakitelako  
zala talentu aundiya.

### ¡¡Ill-da Nuñez!!

Ama euzkera eskribatzalle  
Semerik maitechubenak,  
Jaunak emendik bere ondora  
Banaka damaizki danak;  
¡Euskal-erriyan bere ondoren  
Jesús, abek dira penak!  
Negarrez daude zar da gaztiak  
Ezagutzen zituztanak.

Luma eskuban daukatelarik  
Alderan dana egiñez,  
Malko galantak begiyetatik  
Paper gañera botiez;  
Jauna zerutik lagun zairazu  
Eskatzen dizut mezerez,  
Esan desatan noletan ill dan  
¡Nere lagun ona Nuñez!

*Baserritarra*, 1910-09-10, 155. zk.

### Ill da Otaño

Euskal-Erriyak tristetu dira  
Malkoz busti euskaldunak,  
Negarrez gaude toki askotan  
Otañon zanen lagunak;  
Errezatutzen Jaun aundiari  
Gaztiak eta aitonak,  
Kale alayan nola mendiyen  
Bizitutzen gaituzunak.

Ama euskeren seme leyala  
Itz neurtzalle argiya,  
Bere lanakin Euskal festetan  
Sariyak irabaziya;  
Eskribatzalle gain gañekua  
Oso euskaldun garbiya,  
¡Iltzan Otaño gizaragoa  
Iltzan bai Euskal-Erriya!

*El Pueblo Vasco*, 1910-06-12

## **Iparragirre-ren alargun gašua**

Euskaldun jator onen  
emazte tristia  
chit estu dabillela  
badet aditzia;  
biziko baldiñ bada  
egiñik eskia,  
;non da Iparragirre  
Jaungoiko maitia!

Amerika aldian  
bizi da gašua,  
begira zertaratu  
gaur dezun achua;  
chutik egongo bada  
eskera dijua,  
;non da Iparragirre  
gure Jaungoikua!

Oraiñ nola dagoan  
eztago dudarik,  
danak alde egiñ ta  
gajua bakarrik;  
urte askon indarrez  
doi-doi dago chutik,  
;a zer zartzera daukan  
laguntza gaberik!

Euskalduncho maitiak  
oraiñ bateturik  
eta Iparragirre  
zein zan oroiturik,  
bere emazte ona  
orla ikusirik,  
danok lagunzayogun  
oso kupiturik.

*Euskal Erria*, 1897, XXXVI, 61. or.

## **Joshe Mari, kantari**

Ikusi ditut liburu asko  
zayatunazu ugari  
begiratubaz iztegiyeta  
euzkeras daude zenari;  
buru nekatzen luma artuta  
zer edo zer nairik jarrik  
azaldu zayolako seme bat  
gure Euskal-erriari,  
chit ozo doai edenekua  
azten danian kantari,  
orain artian guzto ematen  
datziyela jendiari,  
eshildu gabe dagar tokiyan  
naiz ordubetian ari,  
eta bukatzen duben orduban  
diyotelan berari  
chalo ta chalo ari dirala  
Biba Biba, Joshe Mari.

Lenago ere izandu dira  
gizon boz ederrekuak,  
Gayarre eta Tamberlim bada  
lan ontan chit zonatuak;  
guchi azaldu diran bezela  
oraiñ arte orlakuak  
bañan beztebat emen daukagu  
bilgadurik Jaungoikoak,  
goititu gaitzan orduba zauda  
Seme Euskal-errikuak,  
ora zubentzako Joshe Mari  
euskaldun biyotzekuak  
nora nai joan da aditu dikan  
ojuak eta chaluak  
bantzandu biar dizugu danak  
zabaldurikan benak  
ezanaz ondo mereziditu  
kantazallien maizubak.

### **Loyarte jaunari omena**

Argiratutzen gauza ederrak  
beti oso egokiya;  
amaika aldiz goititzen dezu  
lumakin Euskal-erriya;  
maisu chit onak ezagaturik  
daukazun jakinduriya,  
orrenchengatik eman dizute  
orlako toki aundiya  
ezanaz bada au da gureztat  
biar dan burusariya.

*Euskal Erria*, 1914, LXX, 492. or.

ez da emen aztuko  
bere eriotza,  
eta apenaz ere  
Tolosa'n jayotza.

Berriz ere guziyok  
gaur egin negarra,  
esanaz ¡ai Artola!,  
buruz chit azkarra;  
Euskal-errian dago  
bai zure biarra,  
atoz zerubetatik  
¡O! gure izarra.

*Euskal Erria*, 1910, LXIII, 165-166.  
or.

### **Malkoak Artola zanaren gatik**

Lau urte orain dira  
Artola il zala,  
edo gure ondotik  
zerura joan zala;  
iñoiz goyan azaltzen  
da bere itzala,  
diruriyela andik  
zerbait ari dala.

Ipui kontari Ramon  
ari da zeruban,  
Ama Euskera beti  
daukala aboan;  
bada aingeruchuak  
arturik onduban,  
esanaz milla gauza  
pasiak munduban.

Artola il zan bañan  
bizi da oroitzta,  
mugi azten dubena  
askoren biyotza;

### **Mintegiaga, agur**

Beaz bazuaz Amerikara  
utzirikan Donostiya,  
soñu jotzalle gañ gañekua  
gaztetandik ikasiya;  
arrebetara jakin deranaz  
lagun chit naitagarriya,  
billaturikan emen bezela  
irabozteko tokiya.

Oroitz ederrak utzi dituzu  
gure Donosti maitian,  
amaika chalo entzun dituzu  
jotzen zendun bakoitzian;  
teatruan da bai eta ere  
bestetan Bulebarrian,  
nola egunaz ala gabian  
jende askoren aurrian.

Zall izango da zu bezelako  
jotzalle onbat topatzen,  
zall izango da gañere emen  
zure izena aztutzen;



zeñen zaituzten mundu danian  
aspalditik ezagutzen,  
bai eta ere biyotzetikan  
aur bat bezela maitatzen.

Agur laguna nei dezun arte  
bañan etorri len bailen,  
leno bezela kontu kontari  
emen alkarriken gauden;  
gure Jaunari eskatzen diyot  
bayan arren eta arren,  
lagun zaizula gauza danetan  
ongi azaldu zaite zen.

### **Nik zuri On Ramon Artola**

Bururatzian euskaldun on bat  
berotutzenezait odola,  
nere barrena hada iñillik  
eziñ dagola iñola;  
bitarte ontan oroitutzen naiz  
gizon prestu bat Artola,  
nere gisara maite duena  
Gernikan dagon arbola.

Argi apur bar Jaungoikoari  
barrendik diyot eskatzen,  
asi nediyan albadinbadet  
Artola zeindan esaten;  
lanikan asko Euskal-erriyan  
beste seme bat topatzen  
Ama euskera onek bezela  
oteduena mintzatzen.

Bertsuetako izugarriya,  
ipuia sortzen obia,  
alde danetan artakua da,  
biotzez oso noblia;  
lagun artian ezda esanik  
guzientzako maitia,

au degu bada mundu onetan  
euskaldun paregabia.

Gauza zallikan ezda onentzat  
naiz lore eta pistiyak,  
baldiñ bersorik ipintzen badu  
jarriko ditu guziyak;  
egaztiyakiñ ezda esanik  
aundiyak eta chikiyak,  
fruta, arbolak, landare gazte,  
zelaicho ta iturriyak.

Ondo dakite zeĩndan Artola  
nik orla esan gaberik,  
oraiñ artian ezda sortu  
beste bat paretzekorik;  
eziñ liteke bada iñola  
ez artu ontan dudarik,  
mundu onetan jaioko dala  
bat eramango diyonik.

Agur zuri On Ramon Artola  
agur bañan gero arte,  
oraindikan bai bertso batzuek  
irakurri nai nituke;  
beste gauza bat oso barrendik  
oraiñ esan nainizuke,  
zu bezelako gizon abillak  
betiko biar luteke.

*Euskal Erria*, 1893, XXVIII, 402-  
403. or.

### **¡O! ¡ill da Lopez Alen!**

Egun batzuek igaro dira  
¡Otaño ere iltzala!  
Eta ondoren ¡Alen maitia!  
Emen gertatuda ala;  
Lagun atsegin bikaiñ bikaña  
Biyotz bigun ta leyala,

¡O! jaun aundiyak bere onduban  
Biyak iruki ditzala.

Ama Euskerak maite zituben  
Seme berešitakuak,  
Bere ondora orra eraman  
Gazterikan Jaungoikuak;  
Itz neurtzalle paregabiak  
Oso gizon jakintsuak,  
¡Penaturikan egin gaur negar  
Euskaldun biyotzekuak!

*Euskal Erria*, 1910, LXIII, 27-28.  
or.

### **Orfeoi Donostiarra**

Irichi dira Madrildik onutz  
ango lanak bukatorik,  
chalo asko ta ondoren bibak  
aditu dituztelarik;  
lenago bañon omen geyago  
¡O! artu dizutelarik,  
kanpotar danak beren kantakin  
choratu dituztelarik  
esanaz bada ezda munduan  
Orfeoi ederragorik.

Bitezar asko irabaziya  
eta koroyez jantziya,  
erri anditan izandudana  
oroiz ederrak utziya  
beti chaloka dankazkiyena  
Españiya ta Frantziya  
medall urresko eta dirua  
kanpotikan charriya  
au da Orfeoi Donostiarra  
gauz onak erakutziya.

Choriyak joaten diran bezela  
umechuleta kabira,  
ta micheletak uda berriyan  
pozkiro lore tokira;  
luze irichirikan askori  
sartu dira Donostira,  
beso zabalik esanaz bada  
emen gera familira,  
egun batzuben igarorikan  
osterera geren errira.

Esnaola da kantu lanian  
buruz chit gizon azkarra,  
dakiyelako ondo nerritzon  
musikak duben indarra;  
aspaldichotik basegoan emen  
orlako baten biarra,  
orain au dago maisu guziyen  
ishpillu edo izarra,  
zerubetayon igodulako  
Orfeoi Donostiarra.

### **Orfeoyari berso bi**

Donostiyatik Barzelona-ra  
joan ziñaten kantatzera,  
bada berriro koroiturikan  
pozaz zatozte echera;  
ango chaluak eta ujuak  
irizten ziran onera,  
erri guziya izan dalako  
zuben kankak aditzera.

Lenago bañan gorago jarri  
dezutela Donostiya,  
zuben gantikan ori esaten  
arida mundu guziya;  
gauza ederra izan dalako  
oraingo joan etorriya,  
¡atozte bada laztangaitezen  
Orfeoi maitagarriya!

### ¡Oroitx negargarriya!

¡Ill zan! On Migel Salaberria  
egun batetik bestera,  
bizitu zana zaitutzen beti  
ondotik Ama euskera;  
Euskal-erritik egan igo zan  
Jauna-ren aldamera,  
zeruban ere aingeruchuai  
itzkuntz au erakustera.

*Euskal Erria*, 1915, LXXII, 410. or.

### ¡Oroitx tristea!

Euskal-erriyan danak dakigu  
On López Alén iltzala,  
eta nola zan Ama euskeren  
argi eder ta itzala;  
eskribatzalle gain gañekua  
emen bizitutzenezala,  
gabaz ta egun luma artuta  
gogoz aritutzenezala,  
arrek bezela zakinenikan  
chit oso guchi zirala.

Franzisko López Alén zerura  
egan joanada emendik,  
¡O! Jaun aundiyak bere biarra  
aldamenaik izanik;  
euskal erriyen negarren gaudez  
guziyak bada gerostik,  
bezo zabalik gora begira  
etorri zaitez esanik,  
malkoarekin begiyak beti  
iturricho bi egiñik.

Udaberriyan leno bezela  
ezda lorerik azaltzen,

eta choriyak arbol gayian  
ezdizute gaur kantatzen;  
errollchubaren murmurtasuna  
ezdegu orain aditzen,  
pishti chikiyak chit saps daudez  
bat ezda inon nabaitzen,  
Alén maitia noletan iltzan  
danak dira oroitutzen.

Lotzaz bezela gorderik dago  
azpalditik eguzkiya,  
eta gabetan ezda ikusten  
biar degun illargiya;  
zeru urdiña arkitutzenda  
odoi beltzen eztaliya,  
Euskal-erriyak alderdi danak  
lutoz daukazki jantziya,  
joantzayolako Alén euskaldun  
ezkribatzalle aundiya.

Itsazuare aserre dago  
guziyak jan biarrian,  
bere urrua aditzen dala  
amar orduko bidian;  
ezda ikuzten chaluparikan  
orain uraren gañien;  
ezdizu onik faltadalako  
Donosti Uri maitian  
seme jatorra buruz argiya  
biarrik aundiyanian.

Euskal-erriyan ezda aztuko  
López zanen eriyotza,  
ezin geyago maite dalako  
jazorik dagon oroitza;  
gaur edo bigar euzkaldunentzat  
datorkigulako lotza  
Euzkera gantikan dezulako  
eman zubena biyotza,  
orain guziyok ziñaturikan  
egin zayogun oitza.

*El Pueblo Vasco*, 1913ko urtarrila

### ¡Oroitz tristia! (I)

Malkoz buztiyak beti daukaizkit  
Iturri bi egiñikan,  
Negar ta negar ¡ama maitia!  
Begiyak urtu nairikan;  
Orain etzaitut ikusten eta  
Burutik eziñ joanikan  
Triste bizi naiz sinista zazu  
Ez det iñondik onikan,  
One la nabil mundu onetan  
Illtziñan ezkerotikan.

Gauza bat daukat bakar bakarrik  
¡Ama! naubena poztutzen,  
Gure Jaunaren onduban bada  
Zaudezelako gozatzen;  
Ori alada bañan... alare  
Ez naiz beñere aztutzen,  
Zaitutabako or egon arren  
Len ambat bada maitatzen,  
Ostera bigok alkartu arte  
Biziko nazu sufritzen.

### ¡Oroitz tristia! (II)

¡O! egan mundu onetatikan  
Serafin joan da Zerura,  
emen negar asko utzirikan  
Jaun aundiyaren ondora;  
euskaldun danak bateturikan  
begiratu zagun gora,  
eta esan oju egiñikan  
atoz, bai, gure besora.

*Euskal Erria*, 1912, LXVII, 65. or.

### Pakea beza

Donostiyatik itsas arruntza  
lagun maite bat joanikan,  
luze egon naiz jakin nayian  
bazan arren berririkan;  
ori askotan besteri bada  
galdetzen niyolarikan,  
ez nuben onik aspaldichuan  
senti ere barrendikan,  
triste nebillen buru nekatzen  
chit oso auldurikan,  
lo egiñ gabe gabaz ta egun  
indar danak galdurikan,  
alako batez uste gabian  
eztakitala nondikan,  
adiskidia batek aladit  
malkuak azaldurikan.  
¡Ill da Otaño gizarajua  
gaitzarekin Amerikan  
familiyan da Euskal-erriyan  
negar asko utzirikan!

*Euskal Erria*, 1910, LXIII, 71. or.

### Pepe Artola

Uda-berriyan egun-sentiyan  
eguzkiya azaltzian,  
eta zerutik urrezko printzak  
lurbiroñon iriztian;  
pipita pipi azten dituzu  
chori chikiyak danian,  
ta micheletak (1) loretik lore  
egaan pozaz baratsian, (2)  
ni ere ala orain ari naiz  
lumarekin paperian,  
eskribatutzen itz neurtu betan  
Pepe zure egunian.

Lagun leyala urte askuan  
echekuakin batian,  
alkarturikan bizi tu zaitez  
gaur bezelashen mayian;  
osasun ona gozaturikan  
Jaunen paketasunian,  
estimatua erri guztiyan  
eta ezagun artian;  
betiko gisan emen naukazu  
zerbait biar dezunian,  
(ta lan apur au donkitzen dizut  
Pepe zure egunian).

(1) Mariposas

(2) Jardin.

### ¡Pozaz negarrez!

OROITZA (1)

Itzarikan onena  
kantataldeari (2)  
Donostiya onratzen  
¡Beti bizi bedi!  
Ongi etorri onbat  
egiñaz danari,  
kantubaren errege  
gaur daukagunari.

### Sporti-Klai-ko jaun danari

(Donkitzen diyet lan apur au)

Urrezko kabi perlas betia,  
zillarra beziñ garbiya,  
diamente ta izarrak bañon  
geyago dizdazariya;

alde daneta kanpota barren  
eziñ geyago argiya,  
usai gozozko lore ederrez  
koroiyen gisa jantziya,  
au da «Sporti Klai» deitzen diyoten  
euskal jatorren tokiya.

Beste izkuntzik ezda mintsatzen  
Sporti-Klai ren euskera,  
beti betiko arrunt utzirik  
erdera alde batera;  
iya lur pian sartu zenduna  
igo digute gañera,  
izkuntz daneren buru dalarik  
bizitu dediñ aurrera,  
erakutziyaz pozaz beterik  
¡euskaldunaren bandera!

Ama euskera ta lege zarrak  
diron apurak oraindik,  
«Sporti-Klai-ra» ezda sartutzen  
iñor maite ezdubenik;  
jayo ezkeroraiñ artian  
bizi diranak ondotik,  
beti saitutzen bildurraz bada  
oso galdu gabetandik,  
ezdutelako ezer topatzen  
berentzako gauz oberik.

«Sporti Klai ko» jaunaren gisa  
danok alkar maitaturik,  
arraitasunak au fedez onela  
aurrera erakutzirik;  
laister ditugu Euskal-erriyan  
lore gozoz apaindurik,  
fueruak eta Ama euskera  
gure Jaunak bigaldurik,  
pake onian bizi gaite zen  
ditugun penak azturik.

### **Toki mereziya**

Ona izanik munduan  
arkitzen zera Zeruan,  
Jaun aundiyaren onduan  
Ama Birjiñen besuan.

*Euskal Erria*, 1912, LXVI, 167. or.

### **Urbieta zanari oroitza**

Eunki asko igaro arren  
dago oraindik jasua,  
kondaira eder bikañ bikaña,  
erderaz eskribatua;  
lurbironetan guchi bezela  
biyotzetik maitatua,  
Ernani-ya ko seme ospatsu  
on bateri donkitua.

¡Euskal-erriyak chit gizon asko  
dauzka oroimen jarrita,  
berak jayo ziran tokiyak  
talluntzarekin jantzita;  
dira Okendo eta Churruka  
Dujiol eta Urdaneta,  
ala ikusi gaur nai litzake  
Ernani-ñe Urbieta.

Danak dakigu Urbieta zala  
bizkorra ta gudariya,  
korajetsua ezin geyago  
gizon ikaragarriya;  
amaikak bada onen eskuban  
utzi bai zuten biziya,  
bera bakarrik asko zenduben  
iltzeko frantzez guziya.

Frantzezak gaurre orchen daukate  
nai ezluteken oroitza,  
irakurtzian kondaira beti  
artzen dutelarik lotsa;  
urte askocho joan dira bañan  
eztatoz berriz onuntza,  
Urbieta zanak bigaldu zitun  
Españiyatik aruntza.

¡O! Urbieta berak arrapatu  
zuben atake batian,  
Frantzeza-ren erregia bada  
sarturik bala tartian;  
jaunda burua ikusirikan  
Española-ren mendian  
danak igasi joan ziran eta  
gelditu ere pakian.

Ernanik oju egin lezake  
burua gora jasarik,  
Urbieta zeintzan erakusteko  
ezdaukalako lotsarik;  
esanaz bada Euskal-erriyan  
baldin badago gizonik,  
onen talluntza plazen erdiyan  
ipiñizazute zutik.

*Baserritarra*, 1909-12-04, 135. zk.

## AURKIBIDE ALFABETIKOA

¡A nere aurchoa!.....	37
¡Ai Pilarcho!.....	29
¡Aingeru maitia!.....	83
Aiton bat eta ni .....	13
Aiton fedetsua .....	75
Aitonak illobachoari.....	83
Ama Birjiña ta aurchoa.....	76
Ama eta aurra (I).....	37
Ama eta aurra (II).....	38
Ama ordezkoa .....	39
Ama, ¡agur!.....	43
Ama-euskera .....	15
Amaren naitasuna .....	40
Angerubak kantari.....	13
¡Arrantzale tristiak! .....	76
Arroketan.....	43
Artzai on baten kankak.....	55
Artzai ona .....	56
Au da euskalduna.....	15
¡Au neska!.....	43
¡Au pena!.....	77
¡Au senarra! .....	65
¡Aur zoragarriya! .....	40
¡Bai neri damutu!.....	65
Barkatu .....	84
Baserritar bi.....	66
Baserritarra (I) .....	44
Baserritarra (II) .....	45
Baserritarra (III).....	45
¡Bedinka baserritarra!.....	46
Beste aingeru bat .....	84
Beti bizi naiz kesketan.....	29
Beti kantari .....	84
Betiko damua .....	67
Betiko kanta .....	68
Betiko negarra .....	78
¡Betoz gure lege zarrak!.....	15
Bizi bedi euskera .....	16
Brijidacho-ri.....	29
Buruz azkarra .....	17
¡Canposantura! (I).....	78
Donostiya .....	7

Egiñ lana.....	46
¡¡Egiñ negar!! Ilda On Ramon Artola .....	85
Eguzkiya ta choriyak.....	33
Eguzkiya.....	33
Emen dek.....	8
Emendek soka-muturra .....	8
Erdi erua .....	68
¡Euskaldun bat negarrez!.....	18
¡Euskaldun maitiak! (I) .....	18
¡Euskaldun maitiak! (II).....	19
Euskalduna.....	20
Euskalerriaren alde.....	20
Euskera gašua.....	21
Euskera mendiyen.....	22
Ezer ezta festa .....	47
Gabon kantak .....	78
Gero arte.....	30
¡Gizon diabrua! (I) .....	70
¡Gizon diabrua! (II) .....	69
Gure mendiyak .....	58
Ill da Otaño .....	86
¡Ill da!.....	85
¡Ill-arteko pena!.....	41
¡Ilda Kosta!.....	86
¡¡Ill-da Nuñez!!.....	86
Iparragirre-ren alargun gašua.....	87
Ipuiya edo kontua .....	59
Izkuntza maitea.....	23
Joshe Mari, kantari .....	87
¡Kanposantura! (II).....	79
Konchan (I) .....	48
Konchan (II) .....	49
Kontu.....	48
Lege zarrak ta euskera .....	24
Lengo lepotik burua .....	71
Limosnacho bat .....	80
Loyarte jaunari omena .....	88
Maitatzen diranak .....	30
¡Maitia!.....	30
Malkoak Artola zanaren gatik.....	88
Mama gareziya .....	71
Martincho ta Marta.....	31
Micheletak baratzen .....	34
Mintegiaga, agur.....	88
Miñtza Euskera .....	25
Mintzatu euskera (I) .....	25



Mintzatu euskera (II) .....	26
Morane egaan.....	50
Morroi leyala.....	50
Nere ametsa .....	26
¡Nere bigi bellcha!.....	31
¡Nere zoramena!.....	41
Neska barrabasa.....	51
Neska zar baten malkuak .....	51
Nik zuri On Ramon Artola .....	89
¡O! ¡jill da Lopez Alen!.....	89
Oraiñ da ordua.....	53
Ordizia gala.....	72
Orfeoi Donostiarra .....	90
Orfeoyari berso bi.....	90
¡Oroitz negargarriya!.....	91
¡Oroitz tristea!.....	91
¡Oroitz tristia! (I).....	92
¡Oroitz tristia! (II).....	92
Otoitzak mendiyen.....	62
¡Otoitzak!.....	80
Pakea beza .....	92
Pepe Artola .....	92
¡Pozaz negarrez!.....	93
Sagarchoko morroya .....	53
San Juan arbola (I) .....	9
San Juan arbola (II) .....	9
Santa Rita ta Santa Kiteria.....	9
Santa Zezilia.....	9
Santo Tomas .....	10
Santo Tomas-etan Donostiyan.....	10
Soka muturra .....	11
Sporti-Klai-ko jaun danari.....	93
Toki mereziya .....	94
Uda-berriya.....	34
Urbietan zanari oroitzak .....	94
Ušo bat mandatariya.....	27
Ušo mandatariya.....	81
¡Zer bi! .....	73
Zeruko izarra .....	41